

LANBIDE HEZIKETA

SALBUESPENAK, BALIOZKOTZEAK,
BALIOKIDETASUNAK ETA HOMOLOGAZIOAK



2023eko UZTAILA

AURKIBIDEA

| | |
|---|----|
| 1. Salbuespenak | 4 |
| 1.1. Lantokiko prestakuntza (FCT)..... | 4 |
| 1.2. Ingeles teknikoa..... | 5 |
| 2. Baliokidetasunak | 6 |
| 3. Homologazioak..... | 7 |
| 4. Kalifikazioa lekuz aldatzea, gainditutako moduluen kasuan | 9 |
| 5. Baliozkotzeak. | |
| 5.1. Araudi orokorra | 9 |
| 5.1.1. LOGSEtik eratorritako Lanbide Heziketako irakaskuntzak | 9 |
| 5.1.2. LOEtik eratorritako Lanbide Heziketako irakaskuntzak | 10 |
| 5.1.3. LOE zikloetan EAEko modulu propioen baliozkotzeak..... | 11 |
| 5.1.4. Moduluak baliozkotzea Oinarrizko LHn | 12 |
| 6. Baliozkotzeak eta salbuespenak eskatzea: oinarrizko eskema | |
| 6.1. Alderdi orokorrak | 12 |
| 6.2. Baliozkotzeak ebazteko eskuduntza..... | 13 |
| 6.3. Tramitatzeko prozedura | 15 |
| 6.4. Ebazteko prozedura..... | 16 |
| 6.5. Errekurtsoak | 17 |
| 6.6. Baliozkotzei edo salbuespenei uko egitea eta uko egitea..... | 17 |
| 7. Baliozkotzei eta salbuespenei buruzko komentarioak eta ñabardurak..... | 18 |
| 8. Konpetentzia-atalen eta lanbide-moduluen arteko egokitasuna..... | 19 |
| 9. Lanbide-moduluen eta konpetentzia-atalen arteko egokitasuna. | 20 |
| 10. Zikloen arteko baliozkotze “gurutzatuak “..... | 20 |
| Laburpena | 23 |
| Modulu moten arabera ordenatutako taulak..... | 24 |
| Baliozkotze-eskaeraren eredia..... | 37 |

2020ko abenduaren 30ean eman zen abenduaren 9ko 1085/2020 errege dekretua argitara. Errege dekretu horren bidez hezkuntza-sistema espainolaren Lanbide Heziketako tituluaren lanbide-moduluak baliozkotzen dira, baliozkotze horiek aplikatzeko neurriak ezartzen dira eta uztailaren 29ko 1147/2011 errege dekretua, hezkuntza-sistemako Lanbide Heziketaren antolamendu orokorra ezartzen duena, aldatzen da. Abenduaren 9ko errege dekretu honen bidez ondorengoak **baliogabetzen dira:**

- Uztailaren 29ko 1147/2011 errege dekretuaren 38.3. artikulua.
- LOEtik eratorritako LHko tituluak arautzen dituzten errege dekretuetan **(IV)**, 2017ko martxoaren 5ean baino lehenago eman badira argitara, ezarritako lanbide-moduluaren baliozkotzei buruzko eranskina.
- 2001eko abenduaren 20ko agindua, LOGSEtik eratorritako LHko ikasketen baliozkotzeak ezartzen dituen, agindu horren geroagoko aldaketak eta,
- Azaroaren 7ko 2159/2014 ECD agindua eta urriaren 26ko 1055/2017 ECDn jasota agertzen den aldaketa; bietan hezkuntza-sistema espainoleko Lanbide Heziketako lanbide-moduluaren arteko baliozkotzeak eta baliozkotze horiek aplikatzeko neurriak ezartzen dira.

Arau honetan ez ezik, ondorengo dekretuetan ere baliozkotzei buruzko alderdiak lantzen dira:

- 2017ko martxoaren 5etik aurrera publikatutako tituluei buruzko errege dekretuak (behar diren eranskinean jasota agertzen diren baliozkotzeak).
- Otsailaren 26ko 32/2008 dekretua, EAEko hezkuntza-sistemako Lanbide Heziketaren antolamendu orokorra ezartzen duena. Otsailaren 2ko 14/2016 dekretuaren bidez aldatu zen.
- 127/2015 errege dekretua, Oinarrizko LH ezartzekoa, eta haren korrelatiboan, EAEko 86/2015 dekretua.

Lanbide Heziketako heziketa-zikloetan baliozkotzei buruzko indarreko legeriaren zenbait atal interpretatu, argitu eta gaurkotzea eta, halaber, legeria horretan era esplizituan jasota agertzen ez diren arren ikastetxeen aldetik zalantzak eta kontsultak eragiten dituzten egoera batzuk argitzea ditu agiri honek helburu.

Vitoria-Gasteiz, 2023eko uztaila

XABIER BALERDI IRAOLA

HEZKUNTZA IKUSKARI NAGUSIA

LANBIDE HEZIKETA

SALBUESPENAK, BALIOZKOTZEAK, BALIOKIDETASUNAK ETA HOMOLOGAZIOAK

1. SALBUESPENAK

Ondorio akademikoetarako balio du **salbuespenak**. Indarreko legerian jasota agertu behar duten arrazoiengatik modulu edo arlo bat egitetik liberatzea da.

Ondorengo lanbide-moduluak egitetik salbuets daiteke:

1.1. LANTOKIKO PRESTAKUNTZA (FCT)

Lantokiko prestakuntzaren modulua lan-esperientziarekin bat badator, modulu hori guztiz edo partzialki egitetik salbuestea erabaki ahal izango da, betiere urtebeteko denbora osoko lan-esperientzia, Lanbide Heziketako ikasketa horiei lotua, egiaztatzen bada (*uztailaren 29ko 1147/2011 errege dekretuaren 39. artikulua eta otsailaren 2ko 14/2016 dekretuaren bidez aldatua izan den otsailaren 26ko 32/2008 dekretuaren 27. artikulua*).

Ikastetxeko zuzendariak, arrazoizko ebazpen baten bidez, baiezkoa edo ezezkoa emango dio salbuespen horri. Ebazpen horren kopia bat ikaslearen espediente akademikoari gaineratuko zaio (*2010eko otsailaren 19ko aginduaren 12. artikulua*).

Uztailaren 17ko 1224/2009 errege dekretuak, lan-esperientziaren bidez eskuratutako gaitasun profesionalak ezagutzeari buruzkoak, 12. artikuluan xedatutakoaren arabera justifikatuko da lan-esperientzia:

A. Soldatapeko langileentzat:

Gizarte Segurantzako Diruzaintza Nagusiaren, Itsasoko Gizarte Institutuaren edo afiliatuta dauden mutualitatearen ziurtagiria. Ziurtagiri horrek ondorengo atalak agertu beharko ditu: enpresa, lan-kategoria (kotizazio-taldea), kontratazio-aldia eta lan-esperientzia eskuratu duten enpresaren lan-kontratua edo ziurtagiria. Ziurtagiri horretan ondorengo elementuek era espezifikoan agertu beharko dute: kontratua eman den aldien iraupena, aurrera eramandako jarduera eta jarduera hori egin den denbora-tartea.

B. Langile autonomoentzat edo norberaren konturako langileentzat:

Gizarte Segurantzako Diruzaintza Nagusiaren edo Itsasoko Gizarte Institutuaren ziurtagiria. Ziurtagiri horrek ondorengo elementuak agertu beharko ditu: Gizarte Segurantzaren erregimen berezian emandako alta-aldiak, aurrera eramandako jardueraren deskripzioa eta jarduera hori gauzatu den denbora-tartea.

C. Borondatezko langileentzat edo bekadunentzat:

Lan-prestazioa eman den erakundearen ziurtagiria, ondorengo elementuak era espezifikoan agertu beharko dituenak: aurrera eramandako jarduera eta funtzioak, egin diren urtea eta eskaini zaizkien orduen kopuru osoa.

Ikaslea matrikulatzen den unetik beretik aitor daiteke erabateko salbuespena edo salbuespen partziala eta, edonola ere, azken ebaluazioaren data baino lehenago ebatzi ahal izateko moduan eman beharko da (*otsailaren 2ko 14/2016 dekretuaren bidez aldatua izan den otsailaren 26ko 32/2008 dekretuaren 27. artikulua bis*). Salbuespen partzialari dagokionez, Lantokiko Prestakuntzaren tutoreari ere emango zaio ebazpenaren berri eta ebazpen horretan salbuetsi diren orduen kopurua adierazi beharko da (*2010eko otsailaren 19ko aginduaren 12.3. artikulua*).

Heziketa-zikloren bat modalitate dualean egin eta bukatzen (gainditzen) duten ikasleak Lantokiko Prestakuntza modulua egitetik salbuetsita egongo dira.

1.2. INGELES TEKNIKOA

1.2.1. Entzuteko ezgaitasuna duten ikasleak

Derrigorrezko eta Derrigorrezkoaren Ondoko Hezkuntzan curriculum-egokitzeapenei eta salbuespenei buruz Hezkuntza sailburuordeak 2012ko irailaren 10ean emandako argibideen arabera, **entzuteko ezgaitasuna** duten ikasleen kasuan, ikasle horiek dute EAEko modulu propioa den Ingeles Teknikotik **partzialki edo guztiz salbuestea** eskatzeko aukera.

Salbuespen osoa eta partziala honako irizpide hauen arabera zehaztuko dira:

- Erabateko salbuespena emango da desgaitasuna % 33tik gorakoa bada.
- Aldiz, desgaitasuna % 33tik beherakoa bada:
 - ✓ Salbuespen osoa, baldin eta egiaztatzen badu bere ibilbide akademiko osoan ingelesetik salbuetsita egon dela.
 - ✓ Gainerakoentzat, salbuespena partziala izango da.

Salbuespen horiek Plangintza eta Antolamendu Zuzendaritzari eskatuko zaizkio, Lanbide Heziketako zuzendariaren 2013eko otsailaren 15eko jarraibideetan ezarritako prozeduraren arabera.

Salbuespen horiek eskatzeko prozedura:

- a) Legezko ordezkariak, adinez nagusia bada interesatuak berak, irakasle tutoreen, ikastetxeak dituen orientazio-zerbitzuen eta, behar izanez gero, Berritzeguneko zerbitzu eskudunen aholkularitzarekin ikastetxeko zuzendaritzaren bidez eskatuko dute salbuespena. Eskaerak elbarritasun-maila aitortzeari buruzko agiria eta, behar izanez gero, eskaera justifikatzeko ikaslearen elbarritasunari buruzko medikuaren txostena sartuko ditu. Zein salbuespen, erabatekoa edo partziala, eskatzen den eta arlo horretan lehenago salbuespenik izan duen zehaztu beharko da eskaeran.
- b) Salbuesteko eskaera bidaliko dio Lanbide Heziketako lurralde-unitateari ikastetxeko zuzendaritzak, eta salbuespen horren egokitasunari buruzko txosten bat, Berritzeguneko zerbitzu eskudunak egindakoa, gehituko dio eskatutako dokumentazioari.
- c) Lanbide Heziketako lurralde-unitateak eskaeraren legezkoitasunari buruzko txostena eskatuko dio Hezkuntza Ikuskaritzari. Ikasleak aurreko ikasketetan arlo horretan nolabaiteko salbuespen

edo curriculum-egokitzapen esanguratsurik izan duen egiaztatu eta adierazi beharko da txosten horretan.

- d) Salbuespena tramitatzeko eskaera egingo dio Planifikazio eta Antolaketa Zuzendaritzari Lanbide Heziketako lurralde-unitateak eta Zuzendaritza horrek, ebazpen baten bidez, baimena emango du edo ez du baimenik emango. Ebazpen hori ikastetxeari bidaliko zaio eta ikastetxe horretako zuzendaritzak idatziz jakinaraziko die ikaslearen legezko ordezkariari edo, adin nagusikoa bada, ikasleari berari ebazpena.
- e) Ebazpena ikaslearen espedientean jasota agertuko da.

1.2.2. EAEko araudian aurreikusten diren beste kasu batzuk.

Otsailaren 2ko 14/2016 dekretuaren bidez aldatua izan den otsailaren 26ko 32/2008 dekretuak 27. artikuluan xedatutakoaren arabera, ondorengo pertsonak dute Ingeles Teknikotik salbuestea eskatzeko aukera:

- 21 urtetik gorako pertsonak, betiere 3 urteko, gutxienez, lan-esperientzia egiaztatzen badute eta, uztailaren 17ko 1224/2009 errege dekretuak (martxoaren 9ko 143/2021 Errege Dekretuak aldatua) xedatutako prozeduraren edo enplegurako lanbide heziketako sistemaren bidez, konpetentzia-unitateak (konpetentzia ezagutzeko dispositiboa) egiaztatuta badituzte edo heziketa-zikloaren iraupenaren erdia, gutxienez, osatzen duten lanbide-moduluak (enplegurako prestakuntza) gainditu badituzte.
- Heziketa-zikloan lehen aldiz matrikulatzen diren urte naturalean 45 urte, gutxienez, beteta dituzten pertsonak

Ikasleak matrikulatuta dauden ikastetxeko zuzendariak emango du.

2. BALIOKIDETASUNAK

Baliokidetasunak ikasketa osoen arabera ematen dira. Aitorpen publikokoak dira, BOEn argitara ematean. Titulu bat (edo interesatuak gainditutako ikasketen multzo bat) beste batek ondorio berberak izatea aitortze a da. Edonola ere, **baliokidetasunak ez du gaurko titulua** edo baliokidea **lortzeko eskubiderik ematen**.

Baliokidetasunaren ondorioak:

- Lanari begirakoak. Prestakuntza batek, baliokide duen beste baten antzera, lan-mundura sartzeko aukera ematen duela espresuki aitortzen du. Normala "ENPLEGU PUBLIKO EDO PRIBATUETARA SARTZEAREN ONDORIOETARAKO BALIOKIDETASUNA " aipatzea da. Ez du araututako profesioei dagokiena zertan eman behar, espresuki aipamena egiten ez badu.
- Akademikoak. Ikasketak egiten jarraitzeko, ikasketa-maila bera duten tituluen arteko baliokidetasuna aitortzen da.

Unibertsitatez kanpoko ikasketen eta tituluen baliokidetasunak, Hezkuntza Sailaren webgunean kontsulta daitezke. Hona hemen esteka:

<https://www.euskadi.eus/unibertsitatez-kanpoko-tituluen-eta-ikasketen-baliokidetzak/web01-a3hakade/eu/>

| TITULAZIOA (955ko IRAKASKUNTZEN) | TITULAZIO BALIOKIDEA (1970eko IRAKASKUNTZEN LEGEA) | ONDORIOAK | EREMUA | ARAU ERREGULATZAILEA |
|--|--|---|-----------|--|
| INDUSTRIA OFIZIALA (Industria Ikaskuntza) | TEKNIKARI LAGUNTZAILEA(Lehen Mailako Lanbide Heziketa- LH1 edo II. mailako esperimentazio-moduluak) | Ondorio akademiko eta profesional guztiak | Generikoa | 1957eko azaroaren 21eko agindua (azaroaren 25eko BOE) |
| INDUSTRIA MAISUA(Industria Maisutza) | TEKNIKARI ESPEZIALISTA(Bigarren Mailako Lanbide Heziketa-LH2 edo III. mailako esperimentazio- moduluak) | | | |

| TITULAZIOA(1970eko IRAKASKUNTZEN LEGEA) | TITULAZIO BALIOKIDEA(GEROAGOKO IRAKASKUNTZAK) | ONDORIOAK | EREMUA | ARAU ERREGULATZAILEA |
|---|---|---|-------------|---|
| TEKNIKARI LAGUNTZAILEA (Lehen mailako Lanbide Heziketak- LH1 edo II. mailako esperimentazio-moduluak) | DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZA | Akademikoak | -- | Maiatzaren 3ko 2/2006 lege organikoa, Hezkuntzarena (4ko BOE) |
| TEKNIKARI LAGUNTZAILEA (Lehen mailako Lanbide Heziketa- LH1 edo II. mailako esperimentazio-moduluak) | TEKNIKARIA (Erdi mailako LOGSE/LOE heziketa-zikloak) | Profesionalak | Espezifikoa | Oharra ikusi (*) |
| TEKNIKARI ESPEZIALISTA (Bigarren mailako Lanbide Heziketa- LHII edo esperimentazio-moduluak) | GOI TEKNIKARIA (Goi mailako LOGSE/LOE heziketa-zikloak) | Ondorio guztiak (akademikoak eta profesionalak) | Espezifikoa | Oharra ikusi (*) |

(*) Apirilaren 30eko 777/1998 errege dekretuak, Lanbide Heziketa hezkuntza-sistemaren eremuan antolatzeko zenbait alderdi garatzen dituenak (maiatzaren 8ko BOE), II. eta III. eranskinetan Teknikari Laguntzailearen eta Teknikariaren titulu desberdinen eta Teknikari Espezialistaren eta Goi Teknikariaren titulu desberdinen arteko baliokidetasun KONKRETUAK ezartzen ditu.

LOGSEren ondoriozko heziketa-zikloen eta berorien ordezkioak diren LOEren ondoriozko heziketa-zikloen arteko baliokidetasunak LOE titulu bakoitzean jasota agertzen dira.

3. HOMOLOGAZIOAK

Unibertsitateaz kanpoko atzerriko tituluak, diplomak edo ikasketen **homologazioek** indarreko hezkuntza-sistema espainolaren tituluekin baliokidetasuna, ondorio akademiko eta profesional guztiekin, aitortzea dakarte. Erkidego honetan, Hezkuntza Saileko Ikasketen Antolamenduko Zerbitzuari, eskatzen dira.

Unibertsitateaz kanpoko hezkuntzaren arloko atzerriko ikasketak eta ikastaro edo ikasketa partzial espainolak baliokidetzak (eremu honetan lanbide-moduluen arabera egingo da) atzerriko ikasketa horiek eta espainolak baliokide direla aitortzea dakar, ikasketak ikastetxe espainol batean jarraitzearen ondorioetarako. Halaber, baliokide diren ikasketak, baliokidetzen den heziketa-zikloak edo maila bereko edo beheagoko beste batekoak izan, integratuta dauden hezkuntza-mailetara zuzenean (hots, sartzeko akreditazioa eskatu behar izan gabe) sartzeko aukera aitortzea ere badakar. Horrek ondorengoa esan nahi du: heziketa-ziklo bateko modulu batzuk partzialki baliokidetzen badira, ezin izango zaizkio, ikasketa horiek egiten jarraitzeko, irakaskuntza horietara edo maila bereko beste batzuetara sartzeko baldintzak ikasleari eskatu.

Tituluak homologatzen dituzten edo ikasketak baliokidetzen dituzten aginduen edukiak banakako kredentzietan jasota agertuko dira. Kredentzial horiek interesatuei entregatuko zaizkie eta hezkuntza-sistema espainoleko ikasleei exijitu ahal izateko moduko dokumentazioaren,- ikasketak gainditu direla edo titulu espainola izatea egiaztatzeko,- ondorio akademiko berberak izango dituzte.

Haien baliokidetze- edo homologazio-espeditenteak hasi diren eta ebatzearen zain dauden ikasleak BALDINTZAPEAN ONARTU AHAL IZANGO DITUZTE ikastetxeek.

1988ko martxoaren 14ko aginduak 10. atalean, 1996ko apirilaren 30eko aginduaren eta abenduaren 16ko ECD/3305/2020 aginduaren bidez aldatua, xedatutakoa hartuko da kontuan BALDINTZAPEAN IZENA EMATEKO orduan:

5. Ondorengoak izango dira izena baldintzapean emateko BOLANTEAREN gehienezko epeak:

- a) *Izena baldintzapean emateko sei hilabete, Erregistro Unitateak zigilatu zuen datatik kontatzen hasita.*
- b) *Baldintzapeko izen-ematea gauzatu ondoren, izen-emate hori gauzatu den ikasturtean bakarrik egongo da indarrean BOLANTEA, azken ebaluazioaren akta izenpetzen den datara arte.*

Dena den, aurreko paragrafoetan adierazitako epeak pasa ondoren homologatzeko edo baliokidetzeko eskaera eskatzaileari egotzi ezin zaizkion arrazoiengatik espresuki ebatzi ez bada, prozedura tramitatzeko organo eskudunak, interesatuaren eskariz, ofiziozko beste BOLANTE bat eman ahal izango du. BOLANTE berria zuzenean bidaliko zaio ikaslea matrikulatuta dagoen ikastetxeari, eta indarrean egongo den epea, ezin izango da ikasturte bat baino gehiagokoa izan, adieraziko du.

6. *Horrela justifikatzen duten zirkunstantziak gertatuz gero, Saileko Idazkaritza Orokor Teknikoak, agindu honen azken xedapen lehenean aipatzen diren argibideen bidez, izango du banakako beste bolante batzuk inprimatu behar izan gabe bolantea indarrean egoteko epeak, oro har, zabaltzeko ahalmena.*

Ebazpen positiboa aurkeztu ezean, egoera erregularizatu beharko da ikasturtearen azken ebaluazioa egiteko orduan. Hori dela-eta, matrikula baliogabetuko da eta aktatik kenduko zaio ikasleari.

Ohar garrantzitsua: izena baldintzapean ematen den kasuen jarraipena ikastetxeak aldizka egitea komeni da.

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak sortutako **aplikazio informatikotik** egiten da unibertsitateaz kanpoko atzerriko ikasketak erabat edo partzialki homologatzeko **tramitazioa**. Prozedura horri buruzko informazioa Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailaren webean dago:

<http://www.euskadi.eus/homologacion-o-convalidacion-de-titulos-o-estudios-extranjeros-no-universitarios/web01-a3hakade/es/>

4. KALIFIKAZIOA LEKUZ ALDATZEA GAINDITUTAKO MODULUEN KASUAN.

LOE heziketa-zikloetako lanbide-moduluak, kode, izen, gaitasun terminal, ikaskuntza-emaitza, eduki eta iraupen berberak badituzte, modulu berdintzat hartuko dira, zein heziketa-ziklokoak diren alde batera utzita, eta gainditutako moduluetan lortutako kalifikazioak modulu horiek sartuta dauden zikloetako edozeinetara aldatuko dira (*otsailaren 26ko 32/2008 dekretuaren 27.10 artikulua, otsailaren 2ko 14/2016 dekretuaren eta abenduaren 9ko 1085/2020 errege dekretuaren 3.2. artikulua bidez aldatua*).

Kode berbera duten EAEko moduluetarako (Ingeles Teknikoa) ere irizpide hau berau erabiliko da.

Kalifikazioaren lekuz-aldatze hau egiteko ez da interesatuaren eskaerarik behar eta **ofizioz egingo da**.

Modulua **gainditu** ondoren lekuz aldatuko da kalifikazioa. Horren arabera, modulu batean deialdiak bukatu zaizkion ikasleak ez du kalifikazio negatiboa lekuz aldatuta izango eta, horregatik, izango du modulu hori sartuta dagoen beste edozein heziketa-ziklotan egiteko aukera.

5. BALIOZKOTZEAK

Ondorio akademikoetarako eta lan-ondorioetarako izango dira **baliozkotzeak** baliagarri eta hezkuntza-sistemara behar den mailara sartu ahal izango dira. Prestakuntza bat aurkezten den beste batek gainditu duela baieztatzea da. Heziketa-zikloak osatzen dituzten lanbide-moduluak baliozkotu daitezke. Ondorengo artean **eskatu ahal izango dira baliozkotzeak**:

- Heziketa-ziklo desberdinetako lanbide-moduluen artean.
- Beste irakaskuntza batzuen edota heziketa-zikloetako akreditazioen eta lanbide-moduluen artean.

Ondorengoek ematen dituzte:

- Ikaslea matrikulatuta dagoen ikastetxeko zuzendariak, indarreko legerietan (otsailaren 2ko 14/2016 dekretuaren eta abenduaren 9ko 1085/2020 errege dekretuaren bidez aldatua izan den otsailaren 26ko 32/2008 dekretuaren 27 bis artikulua) aitortuta badaude.
- Hezkuntza eta Lanbide Heziketako Ministerioak, gutxienezko irakaskuntzetan sartuta dauden arren indarreko legerian (agiriaren 5.1.1.C., 5.1.2.D. eta 5.1.2.E. atalak ikusi) jasota agertzen ez diren lanbide-moduluen baliozkotzeen kasuan.

5.1. BALIOZKOTZEETARAKO ARAUDI OROKORRA

5.1.1 – LOGSEren ondoriozko Lanbide Heziketako irakaskuntzak.

Urriaren 3ko 1/1990 lege organikoaren, Hezkuntza Sistemaren Antolamendu Orokorrari buruzkoaren, ondoriozko heziketa-zikloetan matrikulatutako ikasleek izango dute baliozkotzeak eskatzeko aukera:

A. Beste LOGSE ziklo bat erabat edo partzialki gainditu izana egiaztatzeagatik (**LOGSE → LOGSE**)

LOGSEren ondoriozko zikloetako lanbide-moduluetan egin daitezkeen baliozkotzeak, beste LOGSE ziklo bat erabat edo partzialki gainditu dela egiaztatuz, abenduaren 9ko 1085/2020 errege dekretuaren I. eranskinean jasota agertzen dira.

Erkidego honetako LOGSE modulu espezifikoen kasuan (Hizkuntza Teknikoa eta CMC), apirilaren 30eko 777/1998 errege dekretuan (1998ko maiatzaren 8ko BOE) adierazitako formulazio orokorra

aplikatuko da; izan ere, baliozkotzeko irizpide orokor bat izango da izen, iraupen eta gaitasun terminal berdinetako moduluen artean.

B. LOE ziklo bateko Lanerako Prestakuntza eta Orientabidea modulua gainditu izana egiaztatzeagatik (FOL LOE → FOL LOGSE)

Erdi mailako tituluetan Lanerako Prestakuntza eta Orientabidearen lanbide-moduluak, LOGEren babespean, baliozkotu ahal izango dira, erdi edo goi mailako titulu bateko Lanerako Prestakuntza eta Orientabidearen edozein modulu aurkezten bada (*abenduaren 9ko 1085/2020 errege dekretuaren 2.1. xedapen iragankorra*).

LOGSEren babesa duten **goi graduko** tituluetan ezin izango da Lanerako Prestakuntza eta Orientabidea modulua LOEren babesa duten tituluetakoa Lanera Prestakuntza eta Orientabidea modulua aurkeztuz inoiz baliozkotu (*abenduaren 9ko 1085/2020 errege dekretuaren 2. xedapen iragankorra*).

Ikaslea matrikulatuta dagoen ikastetxeko **zuzendariak du A eta B** ataletako baliozkotzeak EBAZTEKOAREN **eskuduntza**.

C. Ondorengoak egiaztatzeagatik:

- 1970eko abuztuaren 4ko 14 legeak xedatutakoaren babespean ezarritako LH1eko edo LH2ko ikasketak **(1)***
- LOE beste ziklo bat erabat edo partzialki gainditu izana.
- II. eta III. mailetako esperientzia-moduluak.
- Unibertsitate-ikasketa ofizialak.
- Araubide bereziko Ikaskuntzak

Hezkuntza eta Lanbide Heziketako Ministerioak du, ikastetxearen bidez, -C ataleko baliozkotzeak EBAZTEAREN eskuduntza, Atzerriko Hizkuntza edo Ingelesa lanbide-modulua izan ezik, baliozkotu nahi den atzerriko hizkuntzaren espezialitate bereko Filologiako edo Itzulpen eta Interpretazioko unibertsitate-titulazioak aurkezten badira (*abenduaren 9ko 1085/2020 errege dekretuaren 3.7. art.*); kasu horretan, ikaslea matrikulatuta dagoen ikastetxeko zuzendariak izango du ere eskuduntza. Baliozkotzeko eskaeraren tramitazioan aurrerago deskribatzen den prozeduraren arabera jokatu da.

5.1.2-LOEren ondoriozko Lanbide Heziketako irakaskuntzak.

Ondorengo araudietan adierazitakoaren arabera ebatziko dira 2/2006 lege organikotik (LOE) eratorritako Lanbide Heziketako irakaskuntzetan eskatutako baliozkotzeak:

- Abenduaren 9ko 1085/2020 errege dekretua.
- Uztailaren 29ko 1147/2011 errege dekretuaren 38. eta 40. artikulua.
- EAEn arau korrelatiboa ematen da, otsailaren 2ko 14/2016 dekretuaren 27. eta 27 bis artikuluen bidez aldatutako otsailaren 26ko 32/2008 dekretuaren bidez.

Araudi horietaz gain, haien akreditazioak LOE lanbide-moduluen baliozkotzea eragiten duen kompetentzia-unitateak titulu bakoitzaren arau erregulatuaz:

- Titulu bakoitza erregulatzen duten errege dekretuen V A) eranskina.
- EAEko curriculumak erregulatzen dituzten dekretuen VI. eranskina.

Matrikulatutako ikasleek izango dute ondorengo arrazioengatik baliozkotzeak eskatzeko aukera:

- A. Beste LOE ziklo bat guztiz edo partzialki gainditu izana.
- B. LOGSE ziklo bat guztiz edo partzialki gainditu izana.
- C. Kualifikazioen Katalogo Nazionaleko kompetentzia-unitateak, uztailaren 17ko 1224/2009 errege dekretuan (martxoaren 9ko 143/2021 Errege Dekretuak aldatua) araututako prozeduraren edota profesionaltasun-ziurtagirien bidez lortuak.
- D. Abuztuaren 4ko 1970eko 14 legeak xedatutakoaren babespean ezarritako LH1eko edo LH2ko ikasketak.
- E. II. mailako eta III. mailako esperimentazio-moduluak.
- F. Unibertsitate-ikasketa ofizialak.

Ikaslea matrikulatuta dagoen ikastetxeko **zuzendariak du A, B eta C** ataletako baliozkotzeak EBAZTEAREN eskuduntza. **D, E eta F** atalei dagozkienak **Hezkuntza eta Lanbide Heziketako Ministerioaren eskuduntza dira**, Atzerriko Hizkuntza edo Ingelesa lanbide-modulua izan ezik, baliozkotu nahi den atzerriko hizkuntzaren espezialitate bereko Filologiako edo Itzulpen eta Interpretazioko unibertsitate-titulazioak aurkezten badira (*abenduaren 9ko 1085/2020 errege dekretuaren 3.7. art.*). ; kasu horretan, ikaslea matrikulatuta dagoen ikastetxeko zuzendariak izango du ere eskuduntza.

1*

Ohar garrantzitsua: abenduaren 9ko 185/2020 errege dekretuan ondorengo puntuak adierazten dira:

Lehen xedapen gehigarria. Titulazio baliokideak.

Ondorio akademikoetarako edota profesionaletarako Lanbide Heziketako tituluekin baliokidetasun espezifikoa edo generikoa eman zaien ikasketak ezin izango dira lanbide-moduluak baliozkoitzeko erabili, ezta atzerrian eman diren eta hezkuntza-sistema espainoleko tituluekin homologatuak diren tituluak ere.

Horrek hau esan nahi du: LOGSE ikasketak osatu gabe dituztenak izango dira baliozkotzeak, LOGSEtik LOEra esate baterako, erabili ditzaketen bakarrak; INOIZ ERE EZ LOEri buruzko errege dekretuan eta EHAako dekretu koerlatiboan espresuki baliokidetzat jotako titulu bat duten LOGSE tituludunek (EHAako dekretu bakoitzean lehen xedapen gehigarri ikusi: titulazio baliokideak eta gaitasun profesionalakiko lotura).

5.1.3- LOEren zikloetako EAEko modulu propioak baliozkotzea.

Ingeles Teknikoaren modulua E100 edo E200 (erdi eta goi mailarako hurrenez hurren) kodeekin sartzen da Euskal Autonomia Erkidegoko curriculumetan. Modulu hori eta oinarrizko izaerarekin zenbait tituluri buruzko errege dekretuetan sartuta daudenak, beste kode bat daramate, bereizi behar dira.

- Kode bera duten gradu bereko Ingeles Teknikoko moduluen artean kalifikazioa **lekuz aldatuko** da (*otsailaren 26ko 32/2008 dekretuaren 27.10. artikulua, otsailaren 2ko 14/2016 dekretuaren bidez emandako erredakzioan*).
- Otsailaren 26ko 32/200 dekretuak 27. 7. artikuluan xedatutakoaren arabera, otsailaren 2ko 14/2016 dekretuaren bidez emandako erredakzioan:
 - Goi Gradu modulu (E200) gainditzen bada, Erdi Gradu modulu (E100) baliozkotzeko irizpidea hartzen da.

- **Erdi mailako** heziketa-zikloen (**E100**) kasuan Ingeleseko **B1** maila, edo **B1 mailatik** gorakoa, eta **B2 maila**, edo **B2 mailatik** gorakoa, **goi mailako** heziketa-zikloen kasuan (**E200**) egiaztatzen duten pertsonen EAEko Ingeles Tekniko propioaren baliozkotzea aitortzen zaie.
- Halaber, Filologia Ingeleseko edo Itzulpen eta Interpretazioko (Ingelesa) Graduaren titulua edo baliokideren bat egiaztatzen bada, erdi eta goi graduko heziketa-zikloetako Ingeles Teknikoa lanbide-moduluaren baliozkotzea aitortuko da.

5.1.4-Moduluak Oinarrizko LHn baliozkotzea.

Otsailaren 28ko 127/2014 errege dekretuan eta ekainaren 9ko 86/2015 dekretu koerlatiboan, Oinarrizko Lanbide Heziketa Euskal Autonomia Erkidegoan antolatu eta ezartzeari buruzkoa, jasota agertzen dira Oinarrizko LHko irakaskuntzen baliozkotzeak.

Halaber, abenduaren 9ko 1085/2020 errege dekretuaren 2.2.a. artikuluan adierazitakoa ere hartu behar da kontuan:

Kode desberdinak esleituta dituzten eta izen berberak dituzten Oinarrizko Lanbide Heziketako lanbide-moduluak baliozkotuko dira, zein heziketa-ziklokoak diren alde batera utzita.

6. BALIOZKOTZEAK ETA SALBUESPENAK ESKATZEA: OINARRIZKO ESKEMA.

6.1-Alderdi orokorrak.

Baliozkotzeko edo salbuesteko eskaerak baliozkotze edo salbueste hori eskatzen den heziketa-zikloan matrikulatuta egotea exijituko du.

Eskaintza Partzialean edo Urrutikoan matrikulatuta dauden eta ikastetxeak eskaintzen ez dituen lanbide-moduluetan baliozkotzeko aukera duten ikasleek baliozkotzearen ondorio hutsetarako izango dute modulu horietan matrikulatzeko aukera.

Ezin izango da baliozkotzerik eskatu Lanbide Heziketako tituluak lortzeko probetan (proba libreak) (abenduaren 9ko 1085/2020 Errege Dekretuaren 4. artikulua).

Baliozkotzea edo salbuespena ikaslearen espediente akademikoan jasota agertuko da, ebaluazio-aktetan eta ziurtagiri akademikoan, eta ondoren adierazten diren eretan agertuko da:

a) **Baliozkotua**, baliozkotu diren lanbide-modulu horietan.

1. Batez besteko nota lortzearen ondorioetarako baliozkotutako lanbide-moduluak eskatzaileak baliozkotzerako erakutsitako **lanbide-moduluan** (abenduaren 9ko 1085/2020 errege dekretuaren 3.3. art.) eskuratutako notarekin kalifikatuko dira.

Beste lanbide-modulu bat baliozkotzeko hainbat modulu emanez gero, hamartarrik gabe emandako moduluen batez besteko aritmetikoa kalkulatu da, zifra zenbaki oso hurbilenera doitzeko biribiltzeko irizpide matematikoei jarraituz. Irizpide hori bera erabiliko da ziklo oso bat aurkezten denean; baliozkotutako modulua emandako zikloaren batez besteko notarekin kalifikatuko da (hamartarrik gabe).

Kasu horretan, matrikularen aplikazio informatikoan **CV eta baliozkotzeko aurkeztutako lanbide-moduluan lortutako NOTA** agertu beharko dira.

2. Ondorengo ikasketa eta titulazioak egiaztatzen badira, ez da, batez besteko nota kalkulatzearen ondorioetarako, baliozkotzea kontuan hartuko:
 - LOGSE baino lehenagoko unibertsitate-ikasketak edo beste ikasketa batzuk (*abenduaren 9ko 185/2020 errege dekretuaren 3.10. artikulua*).
 - Hizkuntzetako unibertsitate-titulazio ofizialak eta B1, B2 edo goragoko mailetako ziurtagiri akademiko ofizialak.
 - Konpetentzia-unitateen egiaztatzeak.

Kasu horretan, matrikularen aplikazio informatikoan **CV bakarrik** agertu beharko da.

b) **Salbuetsia**, lanbide-modulua salbuetsi den kasu horietan: Lantokietako Prestakuntza, EAEko Ingeles Tekniko propioa.

c) Agiri honen 4. puntuari adierazienez, kode berbera duten LOE zikloetako moduluen kasuan, sartuta dagoen edozein ziklotara **ofizioz aldatuko da** lortutako kalifikazioa.

6.2-Baliozkotzeak ebazteko eskuduntza.

Ikastetxeko zuzendariak era positiboan ebatziko ditu ondorengo lege eta dekretuetan agertzen diren lanbide-moduluen baliozkotzeak:

- Abenduaren 9ko 1085/2020 errege dekretua.
- Tituluen errege dekretuen V.A) eranskinak (edo EAEko curriculumari buruzko dekretuaren VI. eranskina), ekainaren 19ko 5/2002 lege organikoak xedatutakoaren babespean ezarritako Kualifikazio Profesionalen edo Profesionaltasun Ziurtagirien Katalogo Nazionalaren UCren ziurtagiri ofiziala aurkezten bada.
- Otsailaren 2ko 14/2016 dekretuaren 27. Eea 27 bis artikuluen bidez aldatutako otsailaren 26ko 32/2008 dekretua.
- Oinarrizko LH ezartzeari buruzko 127/2015 errege dekretua eta EAEko 86/2015 dekretu koerlatiboa.

Era negatiboan ebatziko ditu lehen aipatutako araudian jasota **agertzen ez diren haren eskuduntzaren arloko eskaerak**.

Ebazpena, behar bezala arrazoitua, interesatuari jakinaraziko zaio.

Eskatutako baliozkotzea araudian jasota agertzen ez bada eta beste ikasketa batzuk baditu oinarri (5.1.1.C., 5.1.2.D eta 5.1.2.E atalak ikusi), baliozkotzeko eskaera ez da ikastetxean ebatziko. Zirkunstantzia horren berri emango zaio interesatuari eta honek eskaerari uko egiten dion edo harekin jarraitzen duen erabaki beharko du. Uko egitea idatziz adierazi beharko du, sinadurarekin. Bestela, hezkuntza-administrazio organo eskudunetan jarraituko du eskaera tramitatzeko prozesuak eta espedienteak behar bezalako dokumentazioa duen ikuskatuko da.

Aldez aurretik baliozkotuta dauden lanbide-modulu edo ikasketa horiek ez dira inoiz ere baliozkotzerako kontuan hartuko eta, horregatik, baliozkotzea, nahi izanez gero, berriz eskatu beharko da eta benetan egin eta gaitutako

EZ DIRA ONARTUKO eta, beraz, EZ DIRA HEZKUNTZA ETA LANBIDE HEZIKETAKO MINISTERIORA BIDALIKO:

A. Ondorengo atalak agertzen dituzten baliozkotzeko eskaerak:

- Master ofizialak.
- Unibertsitate-titulu propio ez ofizialak.
- Esperientzia profesionala eta prestakuntza ez-formala.
- Ikaslea matrikulatuta dagoen LOGSE zikloaren baliokidetzat jo izan diren LH1eko edo LH2ko tituluak. ⁽¹⁾
- Ikaslea matrikulatuta dagoen LOE zikloaren baliokidetzat jo izan diren LH1eko, LH2ko edo LOGSE tituluak. ⁽¹⁾
- Hezkuntza-sistema espainoleko tituluekin homologatuak izan diren atzerrian emandako tituluak. ⁽¹⁾.
- Ekainaren 19ko 5/2002 lege organikoa, Kualifikazioei eta Lanbide Heziketari buruzkoa, baino lehenago ezarritako profesionaltasun-ziurtagiriak.

B. Goi Mailako tituluak dagokien proiektuaren modulua baliozkotzeko eskaerak. ⁽²⁾

C. Unibertsitate-ikasketa ofizialen eta LHko teknikariaren tituluaren artean baliozkotzeko eskaerak. ⁽³⁾

D. Gutxienezko irakaskuntzetarako ezarritako ECTS kredituen % 60 baino gehiago diren moduluen kopuru bat eskatzen duten eskaerak, unibertsitate-ikasketak aurkeztuz. ⁽³⁾

⁽¹⁾ Ondorio akademiko edota profesionaletarako Lanbide Heziketako tituluarekin baliokidetasun espezifikoa edo generikoa emanda duten ikasketak ezin izango dira lanbide-moduluak baliozkotzeko aurkeztu, ezta hezkuntza-sistema espainoleko tituluarekin homologatuak izan diren atzerrian emandako tituluak ere (abenduaren 9ko 1085/2020 errege dekretuaren titulazio baliokideei buruzko lehen xedapen gehigarria).

⁽²⁾ Goi Mailako tituluak dagokien proiektuaren modulua ez da inolaz ere baliozkotzeko eta **salbuetsiko** (abenduaren 9ko 1085/2020 errege dekretuaren 3.5. artikulua).

⁽³⁾ Unibertsitate-ikasketak eta LHko ikasketak baliozkotu ahal izateko, LHkoek goi hezkuntzaren espaziokoak izan beharko dute. Gainera, eskatu eta baliozkotuak izan diren goi mailako zikloetako moduluen kopurua ez da gutxienezko irakaskuntzetarako ezarritako ECTS kredituen % 60tik gorakoa izango, betiere ezagutzaren arloarekin zerikusia duten unibertsitate-irakaskuntzak egiaztatzen badira eta gaitasunak, ezagutzak eta ikaskuntzaren emaitzak antzekoak badira (abenduaren 9ko 1085/2020 errege dekretuaren 3.10. artikulua)

6.3-Tramitatzeko prozedura.

Nahi duen ikasleak matrikulatuta dagoen ikastetxeko zuzendariari ikasturte bakoitzeko irailaren 30a baino lehenago aurkeztuko dio baliozkotzeko eskaera edo, salbuespen gisa, matrikulatu eta 10 egunetara, matrikulazioa epe horren bukaeran egiten bada (*otsailaren 2ko 14/2016 dekretuaren bidez aldatutako otsailaren 26ko 32/2008 dekretuaren 27 bis artikulua*).

Hezkuntza eta Lanbide Heziketako Ministerioak ebatzi behar dituen baliozkotzeko eskaeren kasuan, ikasturtea hasten den egunetik azken egunera artekoa izango da ikastetxean eskaerak aurkezteko epea. Ikasturte bakoitzeko urriak bukatu aurretik aurkeztutako espedientei emango zaie lehentasuna. Aplikaziora sartzen diren eskaera guztiek sarrera-erregistroa izan behar dute. **1085/2020 ED. 5.art**

Modulu horretara sartzeko aukera emango duen azken ebaluazioaren data baino lehenago ebatzi ahal izateko moduko epean egin ahal izango da Lantokiko Prestakuntzatik salbuesteko eskaera (*otsailaren 2ko 14/2016 dekretuaren bidez aldatua izan den otsailaren 26ko 32/2008 dekretuaren 27. bis artikulua*). Uztailaren 17ko 1224/2009 errege dekretuak, lan-esperientziaren bidez eskuratutako gaitasun profesionalak aitortzeari buruzkoak, 12. artikuluan xedatutakoaren arabera justifikatuko da lan-esperientzia (agiriaren 1.1. atala ikusi).

Lehenago adierazitako oinarrizko baldintza orokorrak betetzeaz gainera, ondorengo agiriak aurkeztu beharko dira, ikastetxeko zuzendaritzak tramitatzeko: **(1085/2020 ED. 6.art)**

- Behar bezala betetako eskaera-orria, abenduaren 9ko 1085/2020 errege dekretuak V. eranskinean adierazitako ereduaren antzera.
- Baliozkotu nahi diren moduluen kodea eta izen zehatza espresuki adierazi beharko dira eskaeran.
- Heziketa-ziklo bat egin izanaren partzialaren edo osoaren ziurtagiri akademiko ofiziala. Ziurtagiri digitalaren bidez egiaztatuko dira bakarrik EAEn 2015/2016ko ikasturtetik aurrera egin edo bukatutako LHko ikasketak.
- Profesionaltasun-ziurtagiriaren edo uztailaren 17ko 1224/2009 errege dekretuak (martxoaren 9ko 143/2021 Errege Dekretuak aldatua), lan-esperientziaren bidez eskuratutako gaitasun profesionalak aitortzeari buruzkoak, ezarritako prozeduraren bidez lortutako gaitasun-unitateen akreditazioa.
- Eskatzaileak, unibertsitate-ikasketak dituzten lanbide-moduluak baliozkotzea eskatzen badu, honako dokumentazio hau ere aurkeztu beharko du:
 - a) Egindako ikasgaien programa ofizialen jatorrizkoa edo kopia soila, dagokion unibertsitate-zentroak behar bezala zigilatuta.
 - b) Unibertsitatearen ziurtagiria, honekin batera doazen programak ikasleak benetan ikasitakoak eta gainditutakoak direla adierazten duena.
- Egokia den beste dokumentazio baliagarri bat.

Eskaerak Hezkuntza eta Lanbide Heziketako Ministerioan tramitatzeko prozesua

EGOITZA ELEKTRONIKOAREN bidez bakarrik bidali beharko dira eskaerak eta ondoren adierazten diren urratsen arabera jokatu beharko da:

- 1. Eskatzaileak aurkezten duen derrigorrezko dokumentazioa berrikusiko du ikastetxeak, legeriak**

xedatzen duenera egokitzen den egiaztatuko du eta, behar izanez gero, behar diren zuzenketak, 10 eguneko epean, aurkezteko eskatuko du (*otsailaren 26ko 32/2008 dekretuaren 27 bis 4. artikulua, otsailaren 2ko 14/2016 dekretuaren bidez emandako erredakzioan*). Eskaera egin duen ikasleari jakinaraziko dio zuzendariak, nahi izanez gero prozedurari uko egiteko eskubideaz balia dadin ikaslea. Eskaera **zuzena** bada, eskaera Hezkuntza eta Lanbide Heziketako Ministerioaren EGOITZA elektronikoa **erregistratzeko prozesuari emango zaio hasiera**.

2. Hezkuntza eta Lanbide Heziketako Ministerioak ebatzi behar duen **baliozkotzeko eskaera zuzenean erregistratuko du EGOITZA elektronikoa ikastetxeak**. Horretarako, behar diren datuak bete eta aurkeztutako dokumentazioak markatuko ditu.

- Ikasleen baliozkotze-eskaerak erregistratzen hasi ahal izateko, **bere burua lehenengo aldiz erregistratu behar du ikastetxeak** eta, horretarako, ikastetxearen kodea eman eta pasa-hitz bat sartuko du. Prozedura zehatz-mehatz ezagutzeko, eskaerak tramitzeko Hezkuntza eta Lanbide Heziketako Ministerioak egindako gida kontsulta ezazue: <http://www.educacionyfp.gob.es/eu/dam/jcr:98419623-5d43>.

Halaber, EGOITZA elektronikoa, ondorengo loturaren bidez, bere burua altan eman beharko du ikasleak: <http://sede.educacion.gob.es/sede/login/inicio.jjsp?idConvocatoria=1484>. Datuak bete eta IFZ eta pasa-hitz bat sartuko ditu, ebazpenaren berri izateko eta haren eskaera zein egoeratan dagoen jakiteko.

3. Ondoren, **digitalizatutako dokumentazioa** PDF formatuko artxibo bakar batean, eskaerarekin batera, **gaineratuko du** ikastetxeak eta Hezkuntza eta Lanbide Heziketako Ministeriora EGOITZA elektronikoa bidez bidaliko du. Ikastetxeak berrikusi eta digitalizatutako dokumentazioa baliozkotzeko prozedura honetarako era telematikoa konpultsatuko da. Ezarritako dokumentazioarekin batera ez doazen eskaerak ez dira inoiz ere tramitatuko.
4. Ikastetxeak berak digitalizatuko du aurkeztutako dokumentazioaren PDF motako artxiboa edo, bestela, eskatzaileak zuzenean entregatuko du idazkaritzan, ikastetxeko pertsonalak egiaztatu ahal izateko moduko paperezko kopiarekin batera.
5. Ikasturtea hasten den egunetik azken egunera artekoa izango da eskaerak ikastetxean aurkezteko epea. Ikasturte bakoitzeko urriak bukatu aurretik aurkeztutako espedientei emango zaie lehentasuna.
6. Une horretatik bertatik, Hezkuntza eta Lanbide Heziketako Ministerioako Lanbide Heziketako Antolamendu eta Berrikuntzako Zuzendariorde Nagusia jasoko dira eskaera eta berorren dokumentazioa, aztertu eta ebazteko.

Baliozkotzei eta berorien tramitazioei buruz informazioa jasotzeko, ikastetxeek dute ondorengo loturara zuzenean jotzeko aukera:

<http://www.educacionyfp.gob.es/eu/servicios-al-ciudadano/catalogo/general/05/050210/ficha/050210-centros.html>

Lanbide Heziketako Plangintza eta Antolamenduko Zuzendaritzari egindako eskaerak izapidetzea

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak eskumena badu EAEko berezko moduluetarako, eskaera honako hauei zuzenduko zaie:

Lanbide Heziketako Plangintzaren Zuzendaritza, lurralde-ordezkaritzen bitartez.

6.4-Ebazteko prozedura.

Ikaslea **matrikulatuta dagoen** eta haren espediente akademikoa jasota agertzen den **ikastetxeko zuzendariak** ebatziko ditu indarreko legerian jasota agertzen diren baliozkotze eta salbuespenen eskaerak, hilabete bateko gehienezko epean, **eskaera egin denetik kontatzen hasita**. Gehienezko epea pasa ondoren ez bazaio legezko ebazpena interesatuari espresuki jakinarazi, administrazio-isiltasunez ezetsia izan dela interpretatuko da (*otsailaren 26ko 32/2008 dekretuaren 27 bis 3. artikulua, otsailaren 2ko 14/2016 dekretuaren bidez emandako erredakzioan*).

Ebazpena Hezkuntza eta Lanbide Heziketako Ministerioaren eskuduntza bada:

- Bere tramitea zein egoeratan dagoen ikusi ahal izango du etengabe eskatzaileak eta ez du geroagoko informaziorik beharko. Eskaera ebatzi bitartean, derrigorrean joan behar duklasera eta ebaluazioak egin beharko ditu.
- Eskaera **ebazten denean, e-mail bat jasoko du interesatuak**, ebazpena EGOITZA elektronikoa duela eskura eta deskarga dezakeela aditzera emateko. Halaber, informazio- izaerako kopia bat jasoko du ikastetxeak.

Baliozkotzeari buruzko **ebazpena ezinbestean deskargatu behar du ikasleak**, gauzatu ahal izateko. Ondoren, matrikulatuta dagoen ikastetxean entregatu behar du, gauza dadin, eta hortik aurrera ez du lanbide-modulu horretako klaseetara joan behar.

6.5-Errekurtsoak.

1. Aurreko atalean jasota agertzen den ebazpena dela-eta, gora jotzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango du haren aurka interesatuak, hilabeteko epean, aditzera eman eta hurrengo egunetik kontatzen hasita, **Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidearen** urriaren 1eko 39/2015 legeak 121. eta 122. artikuluetan xedatutakoaren arabera.

Errekurtsoa ondoren adierazten den eran aurkeztuko da:

- a) Ebazpena ikastetxeko zuzendariak ematen badu, Planifikazio eta eta Antolaketa Zuzendaritzan aurkeztuko da errekurtsoa.
- b) **Ebazpenak Lanbide Heziketako Antolamendu eta Berrikuntzako Zuzendariordetza Nagusiak ematen baditu**, gora jotzeko errekurtsoa, idatziz eta erregistro ofizial baten bidez, jarri ahal izango da.

Hezkuntza eta Lanbide Heziketako Ministerioako Errekurtsoen eta Auzitegiekiko Harremanen Zuzendariordetza Nagusiak ebatziko ditu Lanbide Heziketako Antolamendu eta Berrikuntzako Zuzendariordetza Nagusiak emandako ebazpenen kontra jarri diren errekurtsoak. **Horretarako, ezinbestekoa da ebazpena eskatzaileak EGOITZATIK deskargatzea**. Idazkia hilabeteko epean bidali beharko da.

2. Organo eskudunak gora jotzeko errekurtsoa ebazten duenean, ematen zaio administrazio-bideari amaiera.

Berriazko ebazpena jakinarazi gabe sei hilabeteko gehienezko epea pasa ondoren, administrazio-isiltasunez eskaera ezetsia izan dela legez interpretatu ahal izango du interesatuak (*Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 39/2015 legearen 21. eta 24. artikulua*).

6.6-Baliozkotzeei edo salbuespenei uko egitea eta uko egitea.

Baliozkotzeari uko egiteko eskaera eskaera hori ebatzi aurretik aurkezten bada, eskaerari uko egiten zaiola interpretatuko da. **Ebazpena** Hezkuntza eta Lanbide Heziketako Ministerioaren **eskuduntza bada**, interesatuak eskaerari **uko egin diola** jakinaraziko dio Ministerioari ikastetxeko zuzendaritzak, eta tramitea bertan behera geratuko da.

Baliozkotzea edo salbuespena ebatzi ondoren, baliozkotze edo salbuespen horri, osoari edo zati bati, uko egin ahal izango dio interesatuak, azken ebaluazioa baino lehenago.

Ikaslearen eskariz emango zaio **uko egiteko** prozedurari hasiera. Uko egitearen kasuan, azken ebaluazioa baino lehenago aurkeztu beharko da eskaera. **Interesatuaren idazki baten bidez** aurkeztuko da.

Zuzendariak erantzun positiboa emango du uko egitearen edo uko egitearen estimazioari buruz, pertsonen eskubidea baita. Idazkia ikaslearen espedienteari gehituko zaio.

Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 legeak 94. artikuluan xedatzen duena aplikatu da kasu hauetan.

7. BALIOZKOTZEEI ETA SALBUESPENEI BURUZKO KOMENTARIO ETA ÑABARDURAK.

Erdi mailako heziketa-zikloetako lanbide-moduluak eta **Batxilergoko arloak** baliozkotu ahal izango dira, ziklo bakoitzak erregulatzen duen araudiak ezarritako terminoetan.

▪ **“Lantokiko Prestakuntza “** lanbide-modula **ezin izango da inoiz ere baliozkotu.**

▪ **LPO** (Laneko Prestakuntza eta Orientabidea) **eta EEI** (Enpresa eta Ekimen Ekintzailea):

- Lanbide Heziketako edozein titulutako Laneko Prestakuntza eta Orientabidea lanbide-modulua, maiatzaren 3ko Hezkuntzaren 2/2006 lege organikoak (LOE) xedatutakoaren babespean ezarria, baliozkotu ahal izango da, betiere urriaren 3ko 1/1990 legeak, Hezkuntza Sistemaren Antolamendu Orokorrarenak (LOGSE), xedatutakoaren babespean ezarritako Laneko Prestakuntza eta Orientabidea lanbide-modulua gainditu izana egiaztatzen bada eta prebentzio-jardueraren oinarritzko mailan aritzeko ezarritako prestakuntza egiaztatzen bada,- prestakuntza hori egiaztatzeko, indarreko legeriak xedatutakoaren arabera eman beharko da ziurtagiria (Lan Arriskuen Prebentzioko teknikariaren ziurtagiria, oinarritzko maila eta horretarako baimena duen erakundeak eman behar du, urtarrilaren 17ko 39/1997 errege dekretuak, Lan Arriskuen Prebentziorako Zerbitzuen araudia onartzen duenak, xedatutakoaren arabera). Oinarritzko prestakuntza horrek 30-50 ordukoa izan beharko du, enpresaren jarduera-motaren arabera (otsailaren 2ko 14/2016 dekretuaren eta abenduaren 9ko 1085/2020 errege dekretuaren hirugarren xedapen gehigarriaren bidez aldatutako otsailaren 26ko 32/2008 dekretuaren 27.3. artikulua).

- Arrisku Profesionalen Prebentzioko Goi Teknikariaren LOGSE tituluak aurkezten duten pertsonen ere baliozkotzeko zaie LOE heziketa-zikloetako Laneko Prestakuntza eta Orientabidea modulua, Goi Teknikariaren titulu horrek sartzen baititu Lan Arriskuen Prebentzioaren oinarritzko mailako ziurtagiriaren edukiak (*abenduaren 9ko 1085/2020 errege dekretuaren bigarren xedapen gehigarria*).

LOGSE tituluetako **“enpresa txikian administrazioa, kudeaketa eta komertzializazioa “** (AGCPE) lanbide- moduluaren akreditazioak LOE tituluetako **“enpresa eta ekimen ekintzailea “** modulua baliozkotzea eragingo du, zein titulu den **eta berorren gradua** alde batera utzita. **Inoiz ere ez alderantziz.** (*abenduaren 9ko 1085/2020 errege dekretuaren II. eranskina*).

- **LPO eta EEI** betiere baliozkotuko dira LOE heziketa-zikloen artean, haien gradua zein den alde batera utzita (*otsailaren 2ko 14/2016 dekretuaren eta abenduaren 9ko 1085/2020 errege dekretuaren bidez aldatutako otsailaren 26ko 32/2008 dekretuaren 27.4. artikulua*).
- Erdi Mailako Tituluen LOGSE LPOa baliozkotu ahal izango da, erdi-mailako edo goi-mailako LOE titulu baten LPOko edozein modulu aurkezten denean (abenduaren 9ko 1085/2020 Errege Dekretuaren bigarren xedapen iragankorra, 1. zenbakia). **Inola ere ezin izango da baliozkotu goi-mailako tituluen LPO modulua.**
- **LOE** heziketa-zikloetako **LPO** baliozkotu daiteke Gaitasuna Ebaluatzeko eta Aitortzeko Sistematik datozen ikasleentzat (5/2002 Legetik eratorria eta 1224/2009 errege dekretuaren bidez, (martxoaren 9ko 143/2021 Errege Dekretuak aldatua). arautua), EAEko curriculumari buruzko Dekretuaren 4 Atala, 9. artikuluan (Erdi Maila) eta 10. artikuluan (GoiMaila) xedatutakoaren arabera.
 - Tituluaren profilari lotutako kompetentzia-unitate **GUZTIEN** egiaztatzea.
 - Lan-esperientziako urte 1, gutxienez.
 - Lan Arriskuen Prebentzioari buruzko oinarrizko prestakuntzaren ziurtagiria.

LOE heziketa-ziklo **batzuetako Ingeles Teknikoa**, Gaitasuna Ebaluatzeko eta Aitortzeko Sistematik datozen ikasleentzat baliozkotu daiteke, (5/2002 Legetik eratorria eta 1224/2009 Errege Dekretuaren bidez arautua), EAEko curriculumari buruzko Dekretuaren 6. Atala, 9. artikuluan (Erdi Maila) eta 10.artikuluan (GoiMaila) xedatutakoaren arabera:

- Tituluaren profilari lotutako kompetentzia-unitate **GUZTIEN** egiaztatzea
- Proiektu-modulua gainditu dutena (**ziklo formatibo batzuetan**)
- Lan-esperientzia 3 urte, gutxienez

LOE heziketa-zikloetako **EIE**, Gaitasuna Ebaluatzeko eta Aitortzeko Sistematik datozen ikasleentzat baliozkotu daiteke, (5/2002 Legetik eratorria eta 1224/2009 Errege Dekretuaren bidez arautua), EAEko curriculumari buruzko Dekretuaren 5. Atala, 9. artikuluan (Erdi Maila) eta 10.artikuluan (GoiMaila) xedatutakoaren arabera

- Tituluaren profilari lotutako kompetentzia-unitate **GUZTIEN** egiaztapena
- Lan-esperientzia 3 urte, gutxienez

OHAR GARRANTSITZUA

Nolabaiteko kontraesana ikusten da Gaitasuna Ebaluatzeko eta Aitortzeko Sistematik datozen izangaietzako LPO, EIE eta Ingeles Teknikoa baliozkotzeko eskatzen diren betekizunen artean. Alde batetik, baliozkotzeko, proiektuaren modulua gainditzea eskatzen ari da, baina proiektu-modulu hau (eta lantokiko prestakuntza) ebaluatu ahal izateko, heziketa-zikloko modulu GUZTIAK gaindituta eduki behar dira, eta horien artean daude baliozkotzeko aurkezten diren LPO, EIE eta Ingeles teknikoak moduluak. Orduan, ulertu beharko litzateke ikasleari Proiektua (eta Lantokiko Prestakuntza, salbuetsia ez balu) egiten utzi behar zaiola, nahiz eta LPO, EIE eta/edo Ingeles Teknikoa egiteke izan, baldin eta

baliozkotzeko baldintzak betetzen baditu. Baliozkotze hori proiektuaren ebaluazio positiboarekin batera gauzatuko da, dagokion azken aktan.

Proiektu-modulua, lantokiko prestakuntza bezala, ikastetxeak antolatuko du, bere aukeren arabera.

8. KONPETENTZIA ATALEN ETA LOE LANBIDE MODULUEN ARTEKO EGOKITASUNA, BALIOZKOTZEKO.

Lanbide Heziketako tituluak ezartzen dituzten errege dekretuetan, 15. eta 16. artikuluetan erdi eta goi mailarako hurrenez hurren, "lanbide-moduluaren eta konpetentzia-atalen arteko egokitasuna, akreditatzeko, baliozkotzeko edo salbuesteko", hartzen da kontuan. Hau nabarmendu behar da: aipatutako artikuluen 1. atalean konpetentzia-atalen eta tituluaren irakaskuntzak osatzen dituzten lanbide-moduluaren arteko egokitasuna ezartzen da, lanbide-modulu horiek baliozkotzeko edo salbuesteko, eta egokitasun hori errege dekretu gehienetan V A) eranskinean zehaztuta geratzen da.

Abenduaren 9ko 1085/2020 errege dekretuaren 6.3. artikuluan erregulatuta agertzen dira konpetentzia-atal horien baliozkotzeak.

Ondorengo kasuan dauden pertsonentzat **bakarrik** da hau: zikloan matrikulatuta dauden, **hezkuntza-sistematik at datozen eta tituluaren sartuta dauden konpetentzia-ataletakoren bat egiaztatuta dutela erakusten duten pertsonentzat**. Ondorengo bi kasu hauetakoren batean egon behar dute:

- Konpetentzia profesionalak egiaztatzeko uztailaren 17ko 1224/2009 errege dekretuak (martxoaren 9ko 143/2021 Errege Dekretuak aldatua), lan- esperientziaren bidez eskuratutako konpetentzia profesionalak aitortzeari buruzkoak, ezarritako prozeduraren bidez konpetentzia-atalen bat akreditatua izatea.
- Profesionaltasun-ziurtagiri bat, edo berorren zati bat, egin izana, urtarrilaren 18ko 34/2008 ERREGE DEKRETUAK, profesionaltasun-ziurtagiriak erregulatzen dituenak, xedatutakoaren arabera, eta profesionaltasun-ziurtagiri horretan sartuta dauden konpetentzia-atal guztiak, edo baten bat, egiaztatua izatea.

GARRANTZITSUA:

Titulu bakoitza ezartzen duen errege dekretuaren eranskinean konpetentzia-atal bat baino gehiagoren eta modulu baten arteko egokitasuna zehazten bada, **ezin izango da baliozkotze partziala egin**.

Horregatik guztiarengatik, eskatzaileak egiaztatu ditzakeen **konpetentzia-atalen** arabera, eskatzailea egiten ari den irakaskuntzen titulua ezartzen duen errege dekretuaren V A) eranskinean (edo EAEko curriculumari buruzko dekretuaren VI. eranskinean) araututako lanbide-moduluak baliozkotzeko ditu ikastetxeko zuzendaritzak. **Horregatik, heziketa-zikloan matrikulatuta egotea eta matrikula hori egin ahal izateko baldintza akademikoak biltzea eskatzen dira.**

Errege dekretu edo dekretu bakoitzaren eranskinetan ohar osagarri bat gehitzen da eta, ohar horri esker, tituluaren euskarri edo oinarri diren beste lanbide-modulu batzuk ere baliozkotu daitezke.

LOEren babespean sortutako tituluen kasuan, V A) eranskin honetan ezarri den egokitasuna ezin izango da **inoiz ere** kontrako zentzuan erabili, hots, konpetentzia-atalak ikastetxean egiaztatzeko. Lan-agintariek kasu guztietan dute konpetentzia-atalak egiaztatzearen ardura. **(9.atala ikusi)**

9. LANBIDE MODULUEN ETA KOMPETENTZIA ATALEN ARTEKO EGOKITASUNA, AKREDITATZEKO.

Hau gogorarazi behar dugu: tituluak ezartzen dituzten eta maiatzaren 3ko 2/2006 legearen ondoriozko haien gutxienezko irakaskuntzak finkatzen dituzten errege dekretu gehien V B) eranskinean akreditatzeko modukoak diren **kompetentzia-atalak**, titulu zehatz baterako ezarritako lanbide-moduluak gainditzen badira, erregulatzen dira.

Heziketa-zikloa bukatu ez duten, hezkuntza-sistemako lanbide heziketa aldi baterako utzi nahi duten, produkzio-sistemara sartu nahi duten edo Enplegurako Lanbide Heziketa ikasten jarraitunahi duten ikasleei aplikatuko zaie, batez ere, eranskin hau.

Eranskin hau aplikatu ahal izateko baldintzak ondorengoak dira eta denak bete beharko dira:

- Gainditutako lanbide-moduluek LOE tituluaren eranskin honetan definitutako taularen ezkerreko zutabearen agertu behar dute.
- Egiaztatu ahal izateko moduko kompetentzia-atalari, LOE tituluaren eranskinaren eskuineko zutabearen agertzen denari, lotutako lanbide-modulu guztiak gaindituta izatea.

Eranskin honetan ezarritako egokitasuna ezin izango da inoiz kontrako zentzuan erabili. Halaber, **ezin izango da, horrela akreditutako kompetentzia-atalen bidez, beste ziklo batzuetako lanbide-moduluak baliozkotzeko erabili.**

Ohar horiek bi egokitasun-taulak (V A eranskina eta V B eranskina) egotea justifikatzen dute. Horrela izan ezean, bat bakarra existituko litzateke, edo biak guztiz simetrikoak lirateke.

Lanbide- Enplegurako Euskal Zerbitzua da EAE honetan kompetentzia-atalak edo profesionaltasun-ziurtagiriak egiaztatzeko organo eskuduna.

10. ZIKLOEN ARTEKO BALIOZKOTZE “ GURUTZATUAK “.

Tituluei buruzko errege dekretu bakoitzaren IV. eranskinean eta curriculum-dekretu bakoitzaren V. eranskinean adierazten dira urriaren 3ko 1/1990 lege organikoak (LOGSE) xedatutakoaren babespean ezarritako lanbide-moduluaren eta maiatzaren 3ko 2/2006 lege organikoak (LOE) xedatutakoaren babespean ezarritako lanbide-moduluaren arteko baliozkotzeak. Eranskin horretan LOE zikloa, bere aurreko LOGSEekin, aipatzen da. Beste LOE ziklo batzuek lanbide-modulu komunak (kode berbera) izatea ere gerta daiteke. Beste ziklo batzuetako modulu horiek ere LOGSE moduluekin baliozkotuko dira, behar den ziklo horietako eranskinean espresuki identifikatuak agertu ez arren.

Uztailaren 29ko 1147/2011 errege dekretua,

Bosgarren xedapen gehigarria. Urriaren 3ko 1/1990 lege organikoak, Hezkuntza Sistemaren Antolamendu Orokorrenak, xedatutakoaren babespean ezarritako tituluaren lanbide-moduluaren eta maiatzaren 3ko Hezkuntzaren 2/2006 lege organikoak xedatutakoaren babespean ezarritako tituluaren lanbide-moduluaren arteko baliozkotzea.

1. *Maiatzaren 3ko 2/2006 lege organikoak, Hezkuntzarenak, xedatutakoaren babespean sortutako tituluaren eranskinean baliozkotuen artean agertzen diren 1/1990 legearen tituluaren lanbide-moduluek, Lantokiko Prestakuntzak izan ezik, emango dute eranskin horretan agertzen den lanbide-modulua baliozkotzeko eskubidea, zein lanbide heziketako tituluak diren alde batera utzita.*

2. *Ikaslearen espedientea jasota agertzen den ikastetxeko zuzendaritzak aitortuko du baliozkotze hori eta, baliozkotze-agiriarekin batera, exijitutako baldintzak betetzen direla egiaztatzeko dokumentazioa joango da, errege dekretu honek 40. artikuluan xedatutakoaren arabera.*

Abenduaren 9ko 1085/2020 errege dekretua

Bosgarren xedapen gehigarria. Lanbide Heziketako beste titulu batzuetan sartuta dauden lanbide-moduluen arteko baliozkotzeak.

Errege dekretu honen I., II., III. eta IV. eranskinetan ezarritako baliozkotzeak, baita 2017ko martxoaren 5etik aurrera publikatutako tituluei buruzko errege dekretuen eranskinean jasota agertzen direnak ere, edozein heziketa-ziklotan sartuta dauden lanbide-moduluei aplikatu ahal izango zaizkie, Lanbide Heziketako zein titulu den alde batera utzita.

Hots, errege dekretu bakoitzaren IV. eranskina (dekretu bakoitzaren V. eranskina) aplikatu ahal izateko, LOGSEren babespean publikatutako heziketa-zikloren batean matrikulatuta dagoela eta ondorengo baldintza **guztiak** betetzen dituela justifikatu beharko du, **ikastetxeak emandako ziurtagiriaren bidez**, ikasleak:

1^a. Matrikulatuta egon zen LOGSE tituluko lanbide-moduluren bat/batzuk gaindituta izatea.

Gainditu diren LOGSE heziketa-zikloko lanbide-moduluek,- LOE tituluko moduluak baliozkotzeko beharrezkoak dira, sartuta dagoen LOGSE titulua zein den alde batera utzita, LOE tituluaren IV. eranskinaren taularen ezkerreko zutabearen agertu behar dute. Espezifikatutako zentzuan (ezkerretik eskuinera taulan, eta inoiz ere ez kontrako zentzuan) bakarrik baliozkotu daitezke.

LABURPENA

Egin daitezkeen baliozkotzeen edo salbuespenen onuraduna izateko, heziketa-ziklo batean **MATRIKULATU** behar du pertsonak.

Interesatuak ikasturtearen hasieran egin behar du **ESKAERA**¹ eta ikastetxeko zuzendariari zuzendu behar zaio (prozedura-alderdiak dokumentu honen testuan ikusi).

Kontuan hartu beharreko derrigorrezko printzipio orokorrak:

1. Aldez aurretik baliozkotu den modulu batek EZ ditu baliozkotze berriak eragiten.
2. Proiektua modulua ez da baliozkotuko, ezta salbuetsi ere.
3. Lantokiko Prestakuntza modulua salbuetsi ahal izango da, inoiz ere ez baliozkotu.
4. Ondorio akademikoetarako edota profesioletarako Lanbide Heziketako tituluekin baliokidetasun espezifikoa edo generikoa emanda dute ikasketak ezin izango dira lanbide-moduluak baliozkotzeko erabili.

Adibidez: pertsona batek Mekanizatuko LOGSE titulua badu eta Mekanizatuko LOE zikloan matrikulatzen bada, EZ zaizkio baliozkotzeak aplikatuko.

5. Moduluak eta kompetentzia-atalak egokitzeagatik modulu horiek baliozkotzea (tituluak argitara ematen dituzten errege dekretuen V. A eranskina) baliagarri izateko, profesionaltasun-ziurtagiri bat gainditzeak, metatzeko moduko akreditazio partzialak edo kompetentziak ebaluatu eta akreditatzeko prozeduran izandako lorpenek eragin behar dute akreditazioa.

ERANSKINAK: MODULU MOTEN ARABERA ORDENATUTAKO TAULAK

| | Pertsonak ondorengoak ditu: | LOE ziklo bateko moduluak BALIOZKOTZEKO orduan tratamendu orokorra |
|----------|---|---|
| A | LOE zikloetako gainditutako irakaskuntzak | <p>Pertsonak LOE lanbide-moduluak-osorik edo partzialki- (ikasketa ofizialen ziurtagiriaren bidez frogatuak) gaindituta badituzte eta beste LOE ziklo batean matrikulatzen badira, <u>araudiak</u> BAI, kontuan hartzen ditu baliozkotzeak.</p> <p><u>Kontuz</u>: kode eta izen berbera duen modulu bat bada, EZ da baliozkotzetzat joko; lortutako kalifikazioa modulura, ikaslea matrikulatu zen ziklora, eramango da.</p> |
| B | LOGSE zikloetako gainditutako irakaskuntzak | <p>Pertsonak LOGE lanbide-moduluak- osorik edo partzialki- gaindituta badituzte (ikasketa ofizialen ziurtagiriaren bidez frogatuak) eta LOE ziklo batean matrikulatzen badira, <u>araudiak</u>, BAI, kontuan hartzen ditu baliozkotzeak.</p> <p><u>Kontuz</u>: hau gogorarazten dugu: aurkezten duen LOGSE heziketa-ziklo osoa matrikulatu nahi duen LOE zikloaren baliokide bada, EZ da baliozkotzerik emango.</p> |
| C | LOGSE baino lehenagoko ikasketak | <p>Oro har, Teknikari Laguntzaileen (LH1) edo Teknikari Espezialisten (LHII) aurkeztuko dituzten pertsonak izango dira. Kasu horietan, eta betiere ikaslea matrikulatu den zikloaren baliokidetzat jo izan ez diren LHko tituluak badira, ikastetxeko zuzendariaren bidez bidali ahal izango da baliozkotzeko eskaera, Hezkuntza eta Lanbide Heziketako Ministerioak ebatz dezan (abenduaren 9ko 1085/2020 errege dekretuaren lehen xedapen gehigarria).</p> <p>LOGE baino lehenagoko ikasketen titulu horiek LOE tituluren baten BALIOKIDE diren egiaztatzeko, titulu bakoitzari buruzko errege dekretuaren hirugarren xedapen gehigarria ikusi.</p> |
| D | Profesionaltasun-ziurtagiriak edo egiaztapen partzial metagarriak | <p>Profesionaltasun-ziurtagirik ofizialki osatzen dituzten kompetentzia-atalak egiaztatzen dituzte; bada, horrela egiaztatutako <u>kompetentzia-atalek</u> BAI, moduluen baliozkotzeak errazten dituzte, LOE tituluei buruzko errege-dekretuen V A) eranskinak aplikatzearen ondorioz. Egiaztapen partzial metagarriek antzeko tratamendua dute.</p> <p><u>Kontuz</u>: Profesionaltasun-ziurtagiria edo egiaztapen partzial metagarria ofizialak direla baieztatzea komeni da. 34/2008 errege-dekretua baino lehenagoko profesionaltasun-ziurtagirik EZ dituzte zuzenean baliozkotzeak ematen.</p> |
| E | Unibertsitate-ikasketak | <p>Gaur egun EZ dira zuzenean heziketa-zikloetako lanbide-moduluen baliozkotzeak eta salbuespenak kontuan hartzen.</p> <p>Kasu horietan ikastetxeko zuzendariaren bidez bidali ahal da baliozkotzeko eskaera, Hezkuntza eta Lanbide Heziketako Ministerioak ebatz dezan.</p> <p><u>Kontuz</u>: salbuespen bat gertatzen da atzerriko hizkuntzari (ingelesa) lotutako moduluen kasuan. Modulu horietan BAI; unibertsitate-titulu zehatz batzuen bidez modulu konkretu batzuk baliozkotu daitezke (tauletan adierazten dira).</p> |

| | | |
|----------|---|---|
| F | Beste herrialde batzuetan lortutako tituluak | <p><u>Zuzenean EZ</u> da ezer baliozkotu behar.</p> <p>Atzerriko tituluaren kasuan, <i>homologatzeko</i> prozedura konkretu bat da. Titulu osoa edo <i>baliozkotzea</i> ematen bada: aurkeztutako atzerriko titulu bati begira, baliokidetzan jotzen den zikloko lanbide-moduluaren baliozkotzeak ematen badira.</p> <p>Emaitzak agiri bidez jasotzen dira egiaztagiri gisa; bada, egiaztagiri horiek BAI; ondorioak dituzte LOE heziketa-zikloetara sartzeko, berorietan matrikulatzeko eta moduluaren baliozkotzeak eskatzeko orduan.</p> |
| G | Konpetentzia ebaluatu eta egiaztatze prozedura | <p>Konpetentzia ebaluatzeko eta egiaztatze prozedurara aurkeztu izanaren ondorioz lortzen diren ziurtagiriek konpetentzia-atalak egiaztatzearen balioa eta ondorioak dituzte; ondorioz, horrela kreditatutako <u>konpetentzia-atalek</u> BAI; ematen dute moduluak LOE heziketa-ziklo batean baliozkotzeko aukera eta, horrela, "D" atalaren prozedura aplikatzen da.</p> |
| H | Lan-esperientzia | <p><i>Lantokiko Prestakuntza</i> modulutik <u>SALBUESTEKO</u> arrazoia izan ahal izango da.</p> <p>Beste ebidentzia batzuekin osatuta, moduluren bat baliozkotzeko prozesua erraztu ahal izango du (kasuistika hori geroago ikusi).</p> <p>Heziketa-zikloren bat txandakako modalitate dualean egin eta bukatzen duten ikasleak <i>Lantokiko Prestakuntza</i> modulutik SALBUETSITA egongo dira.</p> |

| | Pertsonak ondorengoak ditu ... | LOE LANBIDE MODULU ESPEZIFIKOEN baliozkotzeak (2/2006 legearen babespean) Gerta daitezkeen |
|----------|---|---|
| A | LOE zikloetako irakaskuntza gaindituak | Abenduaren 9ko 1085/2020 errege-dekretuaren III. eranskina aplikatu. Matrikulatzen den LOE zikloan baliozkotuta egongo diren ezaugarri horietako moduluak zeintzuk diren ikusi ahal izango da, lanbide-modulu batzuk edo beste LOE heziketa-ziklo oso bat gaindituta baditu. <u>Kontuz:</u> Kode eta izen berbera dituen modulu bat bada, EZ da baliozkotzetzat joko; matrikulatzen den zikloan, lortutako kalifikazioa modulura eramango da. |
| B | LOGSE zikloetako gainditutako irakaskuntzak | Abenduaren 9ko 1085/2020 errege dekretuaren II. eranskina aplikatu. Ikaslea matrikulatzen den LOE zikloan baliozkotuta izango dituen ezaugarri horietako moduluak zeintzuk diren ikusi ahal izango da, LOGSE lanbide-moduluak, osorik edo partzialki, gaindituak baditu. <u>Kontuz:</u> hau gogorarazten dugu: betiere osorik izan dezakeen LOGSE ez bada matrikulatu nahi duen LOEren baliokide. |
| C | LOGSE baino lehenagoko ikasketak | Arrazoi honengatik EZ zaizkio moduluen mota honi baliozkotzeak aplikatzen. Kasu horietan ikastetxeko zuzendariaren bidez bidal daiteke baliozkotzeko eskaera, Hezkuntza eta Lanbide Heziketako Ministerioak ebatz dezan, betiere ikaslea matrikulatzen den LOE zikloaren titulu baliokide bat ez bada. |
| D | Profesionaltasun-ziurtagiriak edo egiaztapen partzial metagarriak | Titulu bakoitzari buruzko errege-dekretuak ezartzen duen VA) eranskinera jo beharko da eta, konpetentzia-atal batzuk egiaztatzean, baliozkotuta izango dituen ezaugarri horietako lanbide-moduluak ikusi ahal izango dira. |
| E | Unibertsitate-ikasketak | Zuzenean EZ dituzte baliozkotzeak eragiten, ezarritako prozeduraren bidez eskatzen diren kasuetan izan ezik. <u>Kontuz:</u> Atzerriko hizkuntzen moduluekin nolabaiteko salbuespen bat dagoela gogorarazten dugu. |
| F | Beste herrialde batzuetan lortutako tituluak | Arrazoi honengatik modulu hauek EZ dira zuzenean baliozkotzen Hau gogorarazten dugu: prozedura konkretu bat dago kasu horietan. Lanbide Heziketako gaurko tituluari begira, atzerriko titulu baten <i>homologazioa</i> , <i>baliozkotzea</i> eskatzeko idazki bat aurkezten du Lurralde Ordezkaritzetan. |
| G | Konpetentzia ebaluatu eta egiaztatzeko prozedura | "D" atalaren taula erabiltzen da. Taula horren bidez matrikulatzean, zenbait konpetentzia-atal egiaztatu izanaren ondorioz, baliozkotuta egon ahal izango diren lanbide-moduluak ikusi ahal izango dira. |

| | | |
|----------|---|--|
| H | Lan-esperientzia | Arrazoi honengatik EZ dira modulu hauen baliozkotzeak eskatuko. |
| | Pertsonak ondorengoak ditu ... | LANERAKO PRESTAKUNTZA ETA ORIENTABIDEA(LPO) Ondorengo arloan egin daitezkeen baliozkotzeak: GM/GS-LOE (2/2006 legearen babespean) |
| A | LOE zikloetako gainditutako irakaskuntzak | <ul style="list-style-type: none"> Lanerako Prestakuntza eta Orientabidea modulua edozein arlo eta mailatako LOE ziklo batean gaindituta badu, edozein arlo eta mailatan baliozkotuko da. (otsailaren 2ko 14/2016 dekretuaren eta abenduaren 9ko 1085/2020 errege-dekretuaren 3.6. artikulua bidez aldatua izan den otsailaren 26ko 32/208 dekretuaren 27.4. artikulua). |
| B | LOGSE zikloetako gainditutako irakaskuntzak | <ul style="list-style-type: none"> Ikasleak Lanerako Prestakuntza eta Orientabidea modulua LOGSE ziklo batean (edozein arlo eta mailatan) gainditua badu, eta gainera oinarrizko mailako lan-arriskuen prebentzioari buruzko ziurtagiria badu, modulu hori edozein arlo eta mailatan baliozkotzen da. (otsailaren 2ko 14/2016 dekretuaren eta abenduaren 9ko 1085/2020 errege-dekretuaren hirugarren xedapen gehigarriaren bidez aldatua izan den otsailaren 26ko 32/2008 dekretuaren 27.3. artikulua). Arrisku Profesionalen Prebentzioa (arloan: mantentze-lanak eta produktorako zerbitzuak) goi mailako ziklo osoa gaindituta badu, edozein arlo eta mailatan baliozkotuko da (abenduaren 9ko 1085/2020 errege-dekretuaren bigarren xedapen gehigarria). |
| C | E LOGSE baino lehenagoko ikasketak | Arrazoi honengatik modulu honetan EZ dira baliozkotzeak aplikatzen. Kasu horietan ikastetxeko zuzendariaren bidez bidali ahal da baliozkotzeko eskaera, Hezkuntza eta Lanbide Heziketako Ministerioak ebatz dezan. |
| D | Profesionaltasun-ziurtagiriak edo Egiatzapen partzial metagarriak | Arrazoi honengatik EZ dira modulu honetan baliozkotzeak aplikatzen. |
| E | Unibertsitate-ikasketak | EZ dituzte zuzenean baliozkotzeak eragiten. Kasu horietan, ikastetxeko zuzendariaren bidez bidali daitezke baliozkotzeko eskaera, Hezkuntza eta Lanbide Heziketako Ministerioak ebatz dezan. |
| F | Beste herrialde batzuetan lortutako tituluak | Zuzenean EZ dituzte modulu honetan arrazoi honengatik baliozkotzeak eragiten. |

| | | |
|----------|---|--|
| G | Konpetentzia ebaluatu eta egiaztatze prozedura | Uztailaren 17ko1224/2009 errege-dekretuak (martxoaren 9ko 143/2021 Errege Dekretuak aldatua), xedatutakoaren arabera tituluan sartutako konpetentzia-atal GUZTIAK gaindituta baditu, lan-esperientziako urte bat badu eta prebentzio-jardueraren oinarrizko mailan aritzeko ezarritako prestakuntza egiaztatzen badu, ziklorako LPO modulua baliozkotuta izango du. |
| H | Lan-esperientzia | Modulu honetan EZ dira arrazoi honengatik baliozkotzeak aplikatzen. |

| Pertsonak ondorengoak ditu ... | <p style="text-align: right;">ENPRESA ETA EKIMEN EKINTZAILEA (EIE)GM/GS- LOE</p> <p>Ondorengo arloan egin daitezkeen baliozkotzeak:</p> <p style="text-align: right;">(2/2006 legearen babespean)</p> |
|--------------------------------------|--|
| A | <p>LOE zikloetako gainditutako irakaskuntzak</p> <ul style="list-style-type: none"> ▪ Edozein arlo eta mailatako LOE ziklo batean Enpresa eta Ekimen Ekintzailea modulua ikasleak gaindituta badu, edozein arlo eta mailatarako baliozkotzen da (<i>abenduaren 9ko 1085/2020 errege-dekretuaren 3.6. artikulua</i>). ▪ Administrazio Kudeaketa Erdi Mailako ziklo osoa edo Administrazioa eta Finantzak (arloa: Administrazioa eta Kudeaketa) goi mailako zikloa erabat gaindituta badu, edozein arlo eta mailatarako baliozkotzen da (<i>abenduaren 9ko 1085/2020 errege-dekretuaren III. eranskina</i>). |
| B | <p>LOGSE zikloetako gainditutako irakaskuntzak</p> <ul style="list-style-type: none"> ▪ Edozein LOGSE ziklotako <i>enpresa txikian administrazioa, kudeaketa eta merkaturatzea</i> modulua GAINDITUTA badago, EEI edozein arlo eta mailatan BALIOZKOTUKO da. ▪ EEI ondorengo kasuetan BALIOZKOTUKO da: <ul style="list-style-type: none"> ○ <i>Saltoki txiki baten administrazioa eta kudeaketa</i>, Erdi Mailakoa: Merkataritza, (Arloa: Merkataritza eta Marketinga) ○ <i>Familiako nekazaritza-unitate bat antolatzea eta kudeatzea</i> . Erdi Mailakoa, Nekazaritza-arloko edozein. ○ <i>Administrazio Kudeaketa</i> ziklo osoa. ○ <i>Aisialdiko eta gizarte- eta hezkuntza-jardueren enpresa txiki bat antolatzea eta kudeatzea:</i> Goi mailakoa: Animazio soziokulturala (gizarte- eta kultura-zerbitzuak) Goi mailakoa: Gorputz eta Kirol Jardueren Animazioa (Gorputz eta Kirol Jarduerak) Goi Mailakoa: Animazio Turistikoa (Arloa: Ostalaritza eta Turismoa). ○ <i>Bidai Agentzien Antolamendua eta Kontrola</i>, Goi Mailakoa: Bidai Agentziak (Arloa: Ostalaritza eta Turismoa) ○ <i>Jatetxe Arloko Establezimenduak Administrazioa</i> Goi Mailakoa: Jatetxeen Arloa (Arloa: Ostalaritza eta Turismoa) ○ <i>Ortopotesi Kabinete bat Administrazioa eta Kudeatzea</i> Goi Mailakoa Ortopotesikoa (Arloa: Osasuna) ○ <i>Hortz Protesien Kabinete bat Administrazioa eta Kudeatzea</i> Goi Mailakoa: Hortz Protesia (Arloa: Osasuna) ○ <i>Audioprotesien Kabinete bat Administrazioa eta Kudeatzea</i> GS: Audioprotesia (Arloa: Osasuna) ○ <i>Nekazaritza Enpresa baten Antolamendua eta Kudeaketa</i> Goi Mailakoa Natura eta Paisaia Baliabideen Antolaketa eta Kudeaketa (AGA) Goi Mailakoa: Nekazaritza eta Abeltzaintzako Enpresen Antolaketa eta Kudeaketa (Nekazaritzaren arlokoak) ○ <i>Administrazio eta Finantzaketako ziklo osoa</i> (<i>Abenduaren 9ko 1085/2020 errege dekretuaren II. eranskina ikusi</i>). |
| | |

| | | |
|----------|--|--|
| C | LOGSE baino lehenagoko ikasketak | Modulu honetan EZ dira arrazoi horrengatik baliozkotzeak aplikatuko. Kasu horietan ikastetxeko zuzendariaren bidez bidal daiteke baliozkotzeko eskaera, Hezkuntza eta Lanbide Heziketako Ministerioak ebatz dezan. |
| D | Profesionaltasun-ziurtagiriak edo Egiatzapen Partzial Metagarriak | Modulu honetan EZ dira arrazoi horrengatik baliozkotzeak aplikatuko |
| E | Unibertsitate-ikasketak | EZ dira zuzenean baliozkotzeak emango. kasu horietan ikastetxeko zuzendariaren bidez bidal daiteke baliozkotzeko eskaera, Hezkuntza eta Lanbide Heziketako Ministerioak ebatz dezan. |
| F | Beste herrialde batzuetan lortutako tituluak | Modulu honetan EZ dira arrazoi horrengatik zuzenean baliozkotzeak emango. |
| G | Konpetentzia ebaluatzeko eta egiaztatzeko prozedura | Modulu honetan EZ dira arrazoi horrengatik zuzenean baliozkotzeak emango. <u>Kontuz: titulu batzuetan, uztailaren 17ko 1224/2009 errege-dekretuak xedatutakoaren arabera (martxoaren 9ko 143/2021 Errege Dekretuak aldatua) ikasleak bere perfileko konpetentzia-atal GUZTIAK egiaztatuta baditu eta, gainera, EAEn <u>titulu bakoitza erregulatzen duten dekretuek</u>(9. artikulua erdi mailako zikloen kasuan eta 10. artikulua goi mailako zikloen kasuan)ezarritako baldintzak betetzen badira, EEI modulua baliozkotzeko eskaera egin ahal izango da.</u> |
| H | Lan-esperientzia | Modulu honetan EZ dira arrazoi horrengatik baliozkotzeak aplikatuko. |

| Pertsonak ondorengoak ditu ... | LOEko Erdi Mailako INGELESA M00156 Ondorengo arloan egin daitezkeen baliozkotzeak: (2/2006 legeak xedatutakoaren babespean) |
|--------------------------------|---|
| A | LOE zikloetako gainditutako irakaskuntzak <ul style="list-style-type: none"> ▪ S MP0179 modulua gaindituta badu |
| B | LOGSE zikloetako gainditutako irakaskuntzak <ul style="list-style-type: none"> ▪ Atzerriko hizkuntza, ingelesa bada, egin eta gaindituta badu eta modulu horrek 65 orduko iraupena badu, tituluak ezartzen dituzten errege-dekretuek xedatutakoaren arabera. ▪ Goi mailako heziketa-zikloetako Atzerriko Hizkuntzako lanbide-moduluak, edozein izendapenetan, betiere baliozkotu nahi den berbera bada. <i>(abenduaren 9ko 1085/2020 errege-dekretuaren II. eranskina).</i> |
| C | LOGSE bainolehenagoko ikasketak <p>Modulu horretan EZ dira arrazoi horrengatik baliozkotzeak aplikatuko.</p> |
| D | Profesionaltasun-ziurtagiriak edo Egiaztapenpartzial metagarriak <p>BAI, betiere dagokion kompetentzia-atalari lotutako prestakuntza-moduluagaitzatzea izatea egiaztatzen badu.</p> |
| E | Unibertsitate- ikasketak: <ul style="list-style-type: none"> ▪ Filologia Ingeleseko edo Itzulpen eta Interpretazioko (ingelesa) Graduko titulua edo baliokidea. <i>(abenduaren 9ko 1085/2020 errege-dekretuaren 3.7.art.).</i> <p>BAI, baliozkotzen da</p> |
| F | Beste herrialdebatzuetan lortutako tituluak <p>Modulu honetan EZ dira zuzenean baliozkotzeak emango.</p> |

| | | |
|----------|--|---|
| G | Konpetentzia ebaluatu eta egiaztatzeko prozedura | Bai , betiere dagokion konpetentzia-atala egiaztatzen badu. |
| H | Lan-esperientzia | Modulu honetan EZ dira arrazoi horrengatik baliozkotzeak aplikatuko. |
| I | Bestelakoak: <ul style="list-style-type: none"> ▪ Hizkuntza Eskola Ofizialetako Ingeleseko oinarrizko zikloaren ziurtagiria (irailaren 2ko 967/1998 errege-dekretua). ▪ Hizkuntza Eskola Ofizialeko Ingeleseko Erdi Mailako ziurtagiria (B1) (abenduaren 29ko 1629/2006 errege-dekretua) ▪ Hizkuntza Eskola Ofizialeko Ingeleseko gaitasun-ziurtagiria (irailaren 2ko 967/1988 errege-dekretua) ▪ Hizkuntza Eskola Ofizialeko Ingeleseko maila aurreratuaren (B2) edo goi mailako ziurtagiria (abenduaren 29ko 1629/2006 errege-dekretua). ▪ Hizkuntzen marko europarreko Ingeleseko B1 maila, edo maila handiago bat, egiaztatzen duen edozein ziurtagiri (abenduaren 9ko 1085/2020 errege-dekretuaren 3.7. art.). | BAI , baliozkotzen da. |

| <p>Pertsonak Ondorengoak ditu ...</p> | <p>LOEko Goi Mailako Ingelesa MP 0179 (2/2006 legeak xedatutakoaren babespean)</p> <p>Ondorengo arloan egin daitezkeen baliozkotzeak :</p> |
|---|---|
| <p>A</p> | <p>LOE zikloetan gainditutako irakaskuntzak</p> <p>Oro har, modulu honetan EZ dira arrazoi horrengatik baliozkotzeak aplikatuko.</p> <p>Egin izanagatik gaindituta izan dezakeela gogorarazten da. Beste ziklo bateanmatrikulatuz gero, moduluaren nota lekuz aldatzen da.</p> |
| <p>B</p> | <p>LOGSE zikloetan gainditutako irakaskuntzak</p> <ul style="list-style-type: none"> ▪ Atzerriko Hizkuntza (ingeleza) modulua egin eta gainditua badu. ▪ Atzerriko Hizkuntza, ingeleza bada eta 90 orduko iraupena badu, tituluakezartzen dituzten errege-dekretuek xedatutakoaren arabera. ▪ Nazioarteko Merkataritzako atzerriko hizkuntza, ingeleza bada. <i>(Abenduaren 9ko 1085/2020 errege-dekretuaren III. eranskina)</i> |
| <p>C</p> | <p>LOGSE bainolehenagoko ikasketak</p> <p>Modulu honetan EZ dira arrazoi horrengatik baliozkotzeak aplikatuko.</p> |
| <p>D</p> | <p>Profesionaltasun-ziurtagiriak edo Egiatzapen partzial metagarriak</p> <p>Bai, betiere dagokion konpetentzia-atalari lotutako prestakuntza-moduluagainditu duela egiaztatzen badu.</p> |
| <p>E</p> | <p>Unibertsitate- ikasketak:</p> <ul style="list-style-type: none"> ▪ (Filologia Ingeleseko edo Itzulpen eta Interpretazioko (ingeleza) Graduko titulua edo baliokidea <i>(abenduaren 9ko 1085/2020 errege-dekretuaren 3.7. art</i> <p>BAI, baliozkotzen da.</p> |
| <p>F</p> | <p>Beste herrialde batzuetan lortutako tituluak</p> <p>Modulu honetan EZ dira arrazoi horrengatik baliozkotzeak aplikatuko).</p> |

| | | |
|----------|--|---|
| | | |
| G | Konpetentzia ebaluatzeko eta egiaztatzeko prozedura | Bai , betiere behar den konpetentzia-atala egiaztatzen badu. |
| H | Lan-esperientzia | Modulu honetan EZ dira arrazoi horrengatik baliozkotzeak aplikatuko. |
| I | Bestelakoak: <ul style="list-style-type: none"> ▪ Hizkuntza Eskola Ofizialeko Ingeleseko gaitasun-ziurtagiria (irailaren 2ko 967/1988 errege-dekretua). ▪ Hizkuntza Eskola Ofizialeko Ingeleseko maila aurreratuaren (B2), edo goi mailako, ziurtagiria (abenduaren 29ko 1629/2006 errege-dekretua). ▪ Hizkuntzen marko europarreko Ingelesko B2 maila, edo handiago bat, egiaztatzen duen edozein ziurtagiri (<i>abenduaren 9ko 1085/2020 errege-dekretuaren 3.7. art.</i>). | BAI , baliozkotzen da. |

| Pertsonak ondorengoak ditu ... | MP 0180 Bigarren Atzerriko Hizkuntza Ondorengo arloan egin daitezkeen baliozkotzeak: (2/2006 legeak xedatutakoaren babespean) | |
|--------------------------------------|---|--|
| A | LOE zikloetan gainditutako irakaskuntzak | Oro har, modulu honetan EZ dira arrazoi horrengatik baliozkotzeak aplikatuko. Egin izanagatik gaindituta izan dezakeela gogorarazten da. Beste ziklo bateanmatrikulatuz gero, moduluaren nota lekuz aldatzen da. |
| B | LOGSE zikloetan gainditutako irakaskuntzak | <ul style="list-style-type: none"> ▪ Goi mailako Bigarren Atzerriko Hizkuntza, betiere baliozkotu nahi den berberabada (<i>abenduaren 9ko 1085/2020 errege-dekretuaren II. eranskin</i>). |
| C | LOGSE bainolehenagoko ikasketak | Modulu honetan EZ dira arrazoi horrengatik baliozkotzeak aplikatuko. |
| D | Profesionaltasun- ziurtagiriak Egiatzapen partzial metagarriak | Bai , betiere behar den konpetentzia-atalari lotutako prestakuntza-moduluagainditu duela egiatzatzen badu. |
| E | Unibertsitate- ikasketak: <ul style="list-style-type: none"> ▪ Filologiako edo Itzulpen eta Interpretazioko Graduko titulua edo baliokidea (Baliokidetu nahi den atzerriko hizkuntza berekoa). (<i>abenduaren 9ko 1085/2020 errege-dekretuaren 3.7. art.</i>). | BAI , baliozkotzen da |
| F | Beste herrialde batzuetan lortutako tituluak | Modulu honetan EZ dira arrazoi horrengatik baliozkotzeak aplikatuko. |

| | | |
|----------|--|---|
| G | Konpetentzia ebaluatzeko eta egiaztatzeko prozedura | Bai , betiere behar den konpetentzia-atala egiaztatzen badu. |
| H | Lan-esperientzia | Modulu honetan EZ dira arrazoi horrengatik baliozkotzeak aplikatuko. |
| I | Bestelakoak: <ul style="list-style-type: none"> ▪ Hizkuntza Eskola Ofizialeko oinarrizko zikloaren edo gaitasun-ziurtagiria (irailaren 2ko 967/1988 errege-dekretua) (Baliozkotu nahi den atzerriko hizkuntza berekoa). ▪ Hizkuntza Eskola Ofizialeko erdi (B1) edo goi mailako ziurtagiria (abenduaren 29ko 162972006 errege-dekretua) (Baliozkotu nahi den atzerriko hizkuntz berekoa). ▪ Atzerriko hizkuntza berean hizkuntzen marko europarreko B1 maila bat, edo handiagoa, egiaztatzen duen edozein ziurtagiri (Abenduaren 9ko 1085/2020 errege-dekretuaren 3.7. art.). | BAI , baliozkotzen da |

| | Pertsonak ondorengoak ditu ... | E100 - INGELES TEKNIKOA (Erkidegokoa) (2/2006 legeak xedatutakoaren babespean) Ondorengo arloan gerta daitezkeen baliozkotzeak: |
|----------|---|---|
| A | LOE ZIKLOETAN gainditutako irakaskuntzak | <ul style="list-style-type: none"> ▪ E200 modulua gainditua badu. <p>Ikasleak entzuteko arazoak baditu, erabateko salbuespena edo salbuespenpartziala eskatu ahal izango da. Ikasleak beste ziklo bateko E100 modulu bat gainditua badu, nota lekuz aldatubehar dela, eta hori ez dela baliozkotzea, gogorarazi behar da.</p> |
| B | LOGSE ZIKLOETAN gainditutako irakaskuntzak | Modulu honetan EZ dira arrazoi horrengatik baliozkotzeak aplikatuko. |
| C | LOGSE baino lehenagoko ikasketak | Modulu honetan EZ dira arrazoi horrengatik baliozkotzeak aplikatuko. |
| D | Profesionaltasun-ziurtagiriak edo Egiatzapen Partzial Metagarriak | Modulu honetan EZ dira arrazoi horrengatik baliozkotzeak aplikatuko. |
| E | Unibertsitate- ikasketak: <ul style="list-style-type: none"> ▪ Filologia Ingeleseko edo Itzulpen eta Interpretazioko (ingelesa) Graduak titulua edo baliokidea. | BAI , baliozkotzen da |
| F | Beste herrialdebatzuetan lortutako tituluak | Modulu honetan EZ dira arrazoi horrengatik baliozkotzeak emango. |
| G | Konpetentzia ebaluatu eta egiaztatze prozedura | Titulu batzuetan ingeles tekniko a modulua baliozkotzeko eskatu ahal izango da, betiere tituluarik lotuta dauden eta uztailaren 17ko 1224/2009 errege-dekretuak, lan-esperientziaren bidez eskuratutako konpetentzia profesionalak aitortzen dituenak, erregulatutako prozeduraren bidez lortu diren konpetentzia-unitate guztiak egiaztatzen badira eta, gainera, EAEn titulu bakoitza erregulatzen duten dekretuek (9. artikulua erdi mailako zikloen kasuan eta 10. artikulua goi mailako zikloen kasuan) ezarritako baldintzak betetzen badira. |

| | | |
|---|--|---|
| H | Lan-esperientzia | <ul style="list-style-type: none"> ▪ Bai, kasu honetan salbuesteko arrazoia da 21 urtetik gorakoentzat, lan- esperientziako 3 urte badituzte eta DRCon (1224/2009 errege-dekretuaren prozedura) edo lanerako prestakuntzaren bidez konpetentzia-atalak egiaztatuta badituzte edo zikloaren iraupenaren % 50, gutxienez, osatzen duten moduluak gainditu badituzte. |
| I | Bai , kasu honetan salbuesteko arrazoia da 45 urtetik gorakoentzat, adin hori prestakuntza-zikloan lehen aldiz matrikulatzen diren urte naturalean bete badute. | |
| J | <p>Bestelakoak:</p> <ul style="list-style-type: none"> ▪ Hizkuntza Eskola Ofizialeko Ingleseko oinarriko zikloaren ziurtagiria (irailaren 2ko 967/1988 errege-dekretua). ▪ Hizkuntza Eskola Ofizialeko Ingeleseko erdiko mailaren ziurtagiria (B1) (abenduaren 29ko 1629/2006 errege-dekretua). ▪ Hizkuntza Eskola Ofizialeko Ingeleseko gaitasun-ziurtagiria (irailaren 2ko 967/1988 errege-dekretua). ▪ Hizkuntza Eskola Ofizialeko Ingeleseko maila aurreratuaren (B2) edo goi mailako ziurtagiria (abenduaren 29ko 1629/2006 errege-dekretua). ▪ Hizkuntzen marko europarreko ingelesko B1 maila, edo handiagoa, egiaztatzen duen edozein ziurtagiri (<i>otsailaren 2ko 14/2016 dekretuaren bidez aldatua izan den otsailaren 26ko 32/2006 dekretuaren 27.7. art.</i>). | <p>BAI, baliozkotzen da</p> |

| Pertsonak ondorengoak ditu ... | Ondorengo arloan gerta daitezkeen E200 – INGELES TEKNIKOA (Erkidegokoa) (2/2006 legeak xedatutakoaren babespean) Baliozkotzeak |
|--------------------------------|--|
| A | <p>Oro har, modulu honetan EZ dira arrazoi horrengatik baliozkotzeak aplikatuko.</p> <p>Beste ziklo bateko E200 modulu bat gaindituta badu ikasleak, egoera horinota lekuz aldatzea, eta ez baliozkotzea, dela gogorarazi behar da.</p> <p>Ikasleak entzuteko arazoak baditu, salbuespen partziala edo erabatekoa eskatu ahal izango da.</p> |
| B | <p>Modulu honetan EZ dira arrazoi horrengatik baliozkotzeak aplikatuko.</p> |
| C | <p>Modulu horretan EZ dira arrazoi horrengatik baliozkotzeak aplikatuko.</p> |
| D | <p>Modulu honetan EZ dira arrazoi horrengatik baliozkotzeak aplikatuko.</p> |
| E | <p>Unibertsitate- ikasketak:</p> <ul style="list-style-type: none"> ▪ Filologia Ingeleseko edo Itzulpen eta Interpretazioko (ingelese) Gradukotitua edo baliokidea. <p>BAI, baliozkotzen da</p> |
| F | <p>Modulu honetan EZ dira arrazoi horrengatik baliozkotzeak aplikatuko.</p> |
| G | <p>Titulu batzuetan Ingeles Teknikoa modulua baliozkotzeko eskatu ahal izangoda, betiere tituluari lotuta dauden eta uztailaren 17ko 1224/2009 errege- dekretuak, lan-esperientziaren bidez eskuratutako konpetentzia profesionalak aitortzeari buruzkoak, erregulatutako prozeduraren bidez lortu diren konpetentzia-atal guztiak egiaztatzen baditu ikasleak eta, gainera, EAEntitulu bakoitza erregulatzen duten dekretuek (9. artikulua erdi mailako zikloen kasuan eta 10. artikulua goi mailako zikloen kasuan) ezarritako baldintzak betetzen badira.</p> |
| H | <ul style="list-style-type: none"> ▪ Bai, kasu honetan salbuesteko arrazoia da 21 urtetik gorakoentzat, lan- esperientziako 3 urte badituzte eta DRCren (uztailaren 17ko 1224/2009 errege-dekretuaren prozedura) edo lanerako prestakuntzaren bidez konpetentzia-atalak egiaztatuta badituzte eta zikloaren iraupenaren % 50, gutxienez, osatzen duten moduluak gaindituta badituzte. |

| | | |
|---|--|------------------------------|
| I | Bai , kasu honetan salbuesteko arrazoia da 45 urtetik gorakoentzat, adin hori prestakuntza-zikloan lehen aldiz matrikulatzen diren urte naturalean bete badute. | |
| J | Bestelakoak: <ul style="list-style-type: none"> ▪ Hizkuntza Eskola Ofizialeko Ingelesko gaitasun-ziurtagiria (irailaren 2ko967/1988 errege-dekretua). ▪ Hizkuntz Eskola Ofizialeko ingelesko maila aurreratuaren (B2) edo goimailako ziurtagiria (abenduaren 29ko 1629/2006 errege-dekretua). ▪ Hizkuntzen marko europarreko Ingelesko B2 maila, edo handiagoa, egiaztatze duen edozein ziurtagiri (<i>otsailaren 2ko 4/2016 dekretuaren bidez aldatua izan den otsailaren 26ko 32/2008 dekretuaren 27.7.</i> | BAI, baliozkotzen da. |

| | Pertsonak ondorengoak ditu ... | LANTOKIKO PRESTAKUNTZA –LOE Ondorengo arloan gerta daitezkeen baliozkotzeak: (2/2006 legeak xedatutakoaren babespean) |
|----------|---|--|
| A | LOE zikloetan gainditutako irakaskuntzak | Modulu horretan EZ dira arrazoi horrengatik baliozkotzeak aplikatuko. |
| B | LOGSE zikloetan gainditutako irakaskuntzak | Modulu horretan EZ dira arrazoi horrengatik baliozkotzeak aplikatuko. |
| C | LOGSE baino lehenagoko ikasketak | Oro har, modulu horretan EZ dira arrazoi horrengatik baliozkotzeak aplikatuko. |
| D | Profesionaltasun-ziurtagiriak edo Egiaztapen partzial metagarriak | Modulu honetan EZ dira arrazoi horrengatik baliozkotzeak aplikatuko. |
| E | Unibertsitate-ikasketak | Modulu horretan EZ dira arrazoi horrengatik baliozkotzeak aplikatuko. |
| F | Beste herrialde batzuetan lortutako tituluak | Modulu honetan EZ dira arrazoi horrengatik baliozkotzeak aplikatuko. |
| G | Konpetentzia ebaluatzeko eta egiaztatze prozedura | Modulu horretan EZ dira arrazoi horrengatik baliozkotzeak aplikatuko. |
| H | Lan-esperientzia | Bai , kasu honetan salbuesteko arrazoia da. Salbuespen hori erabatekoa edo partziala izan daiteke, lan-esperientzia (dokumentazio ofizialaren bidez frogatua), gutxienez, urtebetekoa, denbora osoan, bada eta ikaslea matrikulatzen den tituluaren perfilari lotuta baldin badago. Ikastetxeko zuzendariak, interesatuaren eskariz, emango du salbuespena eta, ebazteko, ezarritako legeriaren arabera jokatu du. |

Lanbide Heziketako moduluak baliozkotzeko eskaera

DATU PERTSONALAK:

IFZ/NIE/Pasaportea Izena
Deiturak.....
Helbidea
Posta-kodea Herria..... Probintzia.....
Tlf. finkoa Tlf. mugikorra..... Posta elektronikoa.....

INSTITUTUAREN EDO PRESTAKUNTZA ZENTROAREN DATUAK:

Izena
Helbidea
Posta-kodea Herria Probintzia.....
Tlf. finkoa Faxa..... Posta elektronikoa.....

MATRIKULATUTA DAGOEN HEZIKETA ZIKLOA:

(Marcar el que corresponda)

LOGSE

LOE

GRADUA:

AURKEZTEN DITUEN IKASKETAK (LOGSE edo LOE diren adierazi/Unibertsitate-ikasketak/Beste batzuk):

.....
.....

ESKATZEN DITUEN LANBIDE MODULUAK: (Izenak ondo jasota agertu behar du. LOE lanbide-moduluen kasuan, titulua ezartzen duen errege-dekretuan espezifikatutako kodea adierazi).

.....
.....
.....

ESKATZAILEAREN SINADURA ETA DATA: